

MEMORIA

2023

EUSKARA  
ARLOA





# AURKIBIDEA

## 00

### ANTOLAKETA OROKORRA

1. Euskara Arloaren planak	6
2. Batzorde Aholkulariak	7
3. Euskara Arloaren antolaketa	8
4. Euskara Arloaren aurrekontua	9
5. Kalitatea hobetzeko tresnak	10

## 01

### BARNE NORMALIZAZIOA

1. Plan Estrategikoa	12
2. Kirol Arloko Plana	13
3. Plan eta Irizpideen jarraipena	14
4. Harrera ordezkari politikoei	15
5. Lanpostuei Hizkuntza Eskakizuna egokia jarri	16
6. Langileak planaz informatu	17
7. Lanpostu berriei hizkuntza eskakizuna jarri	18
8. Mikroplanak	19
9. Parte hartzea	20
10. Langileen hizkuntza-gaitasuna	21
11. Zinegotzien hizkuntza-gaitasuna	22
12. Hizkuntza hautua jasotzeko eremua	23
13. Mahai gainekoak	24
14. Esperientziak ezagutu eta partekatu	25
15. Kontratuetan hizkuntza klausulak jarri	26
16. Kontratuetoako hizkuntza klausulen jarraipena	27
17. Dirulaguntzetan hizkuntza klausulak jarri	28
18. Dirulaguntzetako hizkuntza klausulen jarraipena	29
19. Irudiaren jarraipena	30
20. Hizkuntza Eskubideak bermatzeko jarraipena	31
21. Ekitaldi eta ikastaroen jarraipena	32
22. Bileretako hizkuntza-erabilera	33
23. Euskarazko harremana enpresa pribatuekin	34
24. Prestakuntza euskaraz	35
25. Trebakuntza saioak	36
26. Baliabide informatikoak	37
27. Idatziak euskaraz sortu	38

# AURKIBIDEA

## 02

### EUSKARAREN SUSTAPENERAKO EKINTZA PLANA

1. <i>Zorionak</i> diptikoa	40
2. Euskarazko produktuen katalogoa	41
3. HAZI HEZI aldizkariaren banaketa	42
4. Infografia <i>Familia hizkuntza Ume eleanitzak</i>	43
5. HH eta LHko ikastetxeekin lankidetza bilerak	44
6. DBH eta Batxilergoko ikastetxeekin lankidetza bilerak	45
7. <i>Gu ere bertsotan</i>	46
8. <i>Jira bueltan</i> materialaren lanketa	47
9. Musikala	48
10. <i>Euskara Zine Aretoetara 2022-2023</i>	49
11. <i>Ongi Etorri Euskarara</i>	50
12. Lanbide Heziketako ikastetxeekin lankidetza bilerak	51
13. <i>Txikitasunean haundi</i> motibazio saioak DBH1	52
14. Gaztelaniaren abantailak	53
15. <i>Mintza On!</i>	54
16. Bertsolaritza inklusio bide	55
17. <i>Alpistegia</i>	56
18. <i>Baga Biga Higa</i> emanaldia	57
19. Arrateko Jarduerak DBH2	58
20. Motibazio saioak Lanbide Heziketan	59
21. D eredu Lanbide Heziketan	60
22. Oinarrizko Euskara Ikastaroa Debabarren Integra/Bat Eginez	61
23. Euskara Saioak Lanbide Heziketan	62
24. Euskaltegien Lan-mahaia	63
25. <i>Gurasoak ere eskolara</i> Egitasmoa 2023-2024	64
26. Euskaltegien lehiaketa: <i>Hitzen nahaste-borrastea</i>	65
27. <i>Berbetan</i> , mintza-praktika egitasmoa	66
28. <i>Ongi Etorri Berbetanera</i>	67
29. Euskara saioak HHI-EPA	69
30. Merkataritza Lan-mahaia	70
31. <i>e// Euskaraz barra-barra</i> egitasmoa	71
32. <i>Euskaraz primeran!</i>	72
33. Juan San Martin Beka 2023	73
34. Eibar euskaraz heziko duen hiria	74
35. UEU dirulaguntza deialdia	75
36. Euskara dirulaguntza izendunak	76
37. Dirulaguntza errotuluak euskaraz	78

# AURKIBIDEA

## 03

### EIBARREN AKEBAI

1. Ekipoa	80
2. Super Akeak	81
3. Irakasleentzako motibazio saioak	82
4. Kirol klubentzako motibazio saioak	83
5. Appa Hi! aplikazioa	84
6. Hezitzaileentzako sentsibilizazio saioa	85
7. Euskarazko edukiak pantailetan	86
8. Hamaika berbaldi	87
9. Errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina	88
10. Hizkuntza eskubideen ataria	89
11. Haurren aurrean, helduok heldu	90
12. Transmisio mintegia	91
13. Euskararen hamabostaldia	92
14. Gaitu	93
15. Euskal Eskaintzaren zabalkundea	94
16. Tantanez tantan	95

## 04

### UDAL EUSKALTEGIA

1. Euskaltegiko plantila	97
2. Euskaltegiaren eskaintza	98
3. Matrikula epeak eta egutegia	99
4. Tasak eta tarifa bereziak	100
5. Taldeak, orduak eta ikasle kopurua	101
6. Ikaslearen profila	102
7. HABEren aztertzaileak	103
8. Formazioa	104
9. Kanpo ekintzak	105
10. Liburutegi zerbitzua	107
11. Egiatzatze gintza	108

# ANTOLAKETA OROKORRA

## EUSKARA ARLOAREN PLANAK

**DESKRIBAPENA:** Euskara Arloak honako plan hauek ditu indarrean:

- Barne Erabilera Plana 2023-2027.
- Eibarko Hiria, Euskararen Plan Estrategikoa 2016-2025 (AKEBAI)
- Udal Euskaltegiaren 2023-2024 ikasturteko plana



**EPEA:** 2023


**GASTUA:** Euskara Arloaren aurrekontu osoa

**BALORAZIOA:**

Euskararen erabilera normalizatzeko VI plangintzaldiaren balorazioa egin da 2023-2027 plangintzaldiko diagnostikoan jaso dena. Euskararen plan estrategikoaren urteko balorazioa Euskara batzordean egin da eta AKEBAIren batzar nagusian egiten da. Udal euskaltegiak ikasturteko plana eta memoria egiten du HABEn eta Euskara Batzordean aurkezteko.

## BATZORDE AHOULKULARIAK

**DESKRIBAPENA:** Euskara Arloak indarrean dituen planen jarraipena bi batzorde aholkularitan egiten da:



### **Euskara Batzordea:**

- Presidentea, PSE-EEko zinegotzia.
- PSE-EEko zinegotzi bat.
- EH Bilduko zinegotzi bat
- EAJko zinegotzi bat
- Irabaziko zinegotzi bat/ Elkarrekin Eibar/Podemos
- Udal Euskaltegiko zuzendaria
- Idazkaria, Euskara Arloko zuzendaria

Bilera hilean behin egiten da.

ESEP eta AKEBAko gaien jarraipena egiten da. Udal Euskaltegiaren funtzionamenduaren jarraipena ere egiten da.

### **ENBA:**

- Batzordeburua, PSE-EEko zinegotzia
- PSE-EEko zinegotzi bat.
- EH Bilduko zinegotzi bat
- EAJko zinegotzi bat
- Irabaziko zinegotzi bat/ Elkarrekin Eibar/Podemos
- Langileen batzordearen ordezkaria
- Langileria eta Antolamendu saileko arduraduna
- Hizkuntza normalizatzailea
- Idazkaria, Euskara Arloko Zuzendaria

Bilera hilean behin egiten da.

Barne Erabilera planaren jarraipena egiten da.

### **EPEA: 2023**

**GASTUA:** Barne baliabideak eta zinegotzien dietak

### **BALORAZIOA:**

**Euskara Batzordea:** 8 batzorde egin dira, 48 gai landu dira.

**ENBA:** 5 batzorde egin dira, 23 gai landu dira.





## EUSKARA ARLOAREN ANTOLAKETA

**DESKRIBAPENA:** Euskara Arloa bi zerbitzutan banatuta dago: Euskara Zerbitzua eta Udal Euskaltegia. Guztira 11 lagun daude.



Kargua	Oharrak
Arloko Zuzendaria/ euskara teknikaria	
Barne normalizatzailea	
Itzultzailea	Itzulpen zerbitzurako lanean
AKEBAI dinamizatzailea	
Euskaltegiko irakasleak 6	
Administraria	

**EPEA:** 2023


**GASTUA:** 990.280 €

**BALORAZIOA:**

Ohiko plantilaz gain, Udal Euskaltegirako 4 irakasle gehiago kontratatu behar izan dira aldi baterako.

## EUSKARA ARLOAREN AURREKONTUA

**DESKRIBAPENA:** Euskara Arloa bi zerbitzutan banatuta dago.



**EPEA: 2023**

**GASTUA:**


	DIRU-SARRERAK	GASTUAK
<b>EUSKARA ARLOA</b>	<b>353.100,46 €</b>	<b>1.208.442,26€</b>
Euskara Zerbitzua	14.674,00 €	613.179,55 €
Euskaltegia	338,426,46 €	595.262,71 €



## KALITATEA HOBETZEKO TRESNAK

**DESKRIBAPENA:** Euskara Arloa (Udal Euskaltegia eta Euskara Zerbitzua) etengabe ari da kalitatea hobetzen, horretarako hainbat lan egin ditu urtean zehar:

- **Langileen etengabeko formazioa:** eguneratzeko eta udaleko gainerako zerbitzuei, herritarrei eta euskaltegiko ikasleei zerbitzu ona eman ahal izateko.
- **Lankidetzak:** Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika sailburuordetzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundian Udalekin egitasmoaren barruan lankidetzan jarduten da.
- **Euskaltegian Curriculumuma:** HABEren aginduari jarraituz Euskaltegiak curriculum berria diseinatu du eta ondoren HABEren oniritzia jaso du. Hala ere, hori hobetzen jarraituko du.
- **Zerbitzuen Karta:** Euskara Zerbitzuak eta Udal Euskaltegiak 2018tik zerbitzuen kartak egin dituzte. Horietan eskaintzen diren zerbitzuen berri ematen die herritarrei. Gainera, zerbitzu horiek aurrera eramateko konpromiso batzuk hartu dira kalitatea oinarri direla. Konpromiso horien betetze-maila, aldiro-aldiro neurtuko da eta neurri zuzentzaileak hartuko dira.



EPEA: 2023





# BARNE NORMALIZAZIOA

## PLAN ESTRATEGIKOA

**DESKRIBAPENA:** Plangintzaldi berriko lehen urtean, barne-erabilerarako plan berria egiten da, aurreko planaren betetze-mailaren jarraipena eta uneko egoeraren diagnosia eginda.



**EPEA:** 2023

**GASTUA:** Barne baliabideak


**BALORAZIOA:** Plan berria diseinatu dugu VII. plangintzaldiako Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikaren gidalerroak jarraituta, eta ENBAk dagoeneko bere oniritzia eman dio. 2024ko urtarrilean joango da plenora.

Plana diseinatzeko, egoeraren diagnosia egin da. Erabilera datuak bi iturritatik jaso dira, erakundeak (Euskara sailak) erantzundako galdetegitik eta langileek betetako galdetegitik. Horrez gain, kontuan hartu dira 2022an Bikain ziurtagiria lortzeko egindako aurre-diagnosia, zeinetarako ebidentziak bildu baitziren, eta kanpoko ebaluatzaileek egindako txostena. Gainera, Euskararen Lan Mahaian bideratutako hausnarketatik AMIA osatu da (indarguneak, zer hobetuak, aukerak eta mehatxuak) eta ENBAko batzordekideek egindako ekarpenak ere jaso dira.

Bestalde, 2023ko kudeaketa-plana egin da, aurreko urteko memoriatik abiatuta.

## KIROL ARLOKO PLANA

**DESKRIBAPENA:** Udalera duela gutxi integratutako arloaren diagnostika eta plana egitea.



**EPEA:** 2023

**GASTUA:** Barne baliabideak

### **BALORAZIOA:**

Duela gutxira arte Kirol Patronatua izan dena Udalaren barnean sartu eta kideen artean aldaketak gertatu direnez, ezinbestekoa da diagnostika eta erabilera-plana egitea.

Bilera egin da kudeatzailearekin eta kirol teknikariarekin, planaren eta hizkuntza irizpideen berri emateko. Diagnostikoa abiatzeko, arduradunek galdetegi moduko bati erantzun diote eta euskararen lan-mahaiko batzarretara etortzen hasi dira. Diagnostika osatzeko, bertako langileek galdetegiari erantzun diote, gainerako sailetan egin bezala. Kontratuetan hizkuntza-irizpideak jartzearen beharra azpimarratu da eta kontratu batzuetan aholkularitza eman zaie. Dirulaguntzetako jarduketa-memoriak ere eskatu dira eta harrera egin zaie langile hasi berri batzuei.

Udaleko barne-erabilerarako plana onartutakoan, egindako ebaluazioa aztertuko da eta plan propioa landuko da 2024an.

## PLAN ETA IRIZPIDEEN JARRAIPENA

**DESKRIBAPENA:** Erabilera-plana eta hizkuntza-irizpideak betetzen diren zaintzeko, jarraipena egiten da: ekitaldiak, prestakuntza, kontratuak, bilerak, dirulaguntzak, mikroplanak...



**EPEA:** 2023

**GASTUA:** Barne baliabideak

### **BALORAZIOA:**

Planaren jarraipena plangintzaldiaren hiru unetan egiten da, hasieran, tartean eta amaieran. Bestalde, urtero egiten da kudeaketa planaren memoria. Aurten plan berria egiteko hasierako diagnosis egin da. Horretarako, galdetegiak bete dira (erakundearena eta langileena). Bestetik, urtero zenbait erregistro egiten dira (ekitaldiak, kontratuak, dirulaguntzak...). Kexen eta ez-betetzeen erregistroa ere egiten dugu.

Guztia 2023ko memorian jasotzen da.

## HARRERA ORDEZKARI POLITIKOEI

**DESKRIBAPENA:** Agintaldi hasieran informazio-saioak egiten dira udal osatu berriko ordezkariari euskara-planaren berri emateko. Helburua da euskararen erabileraren gaineko datuak ematea, normalizazioan egindako bidea erakustea eta haien euskararekiko jarrera eta jokabidea zein garrantzitsua den azaltzea.



**EPEA:** 2023

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Uztailean bi saio egin dira, egun berean eta ordutegi ezberdinetan. Geroago, irailean, aurrekoan egon ez zirenekin beste bi saio egin dira. 21 kideetatik 14k hartu dute saioa.



## LANPOSTUEI HIZKUNTZA ESKAKIZUNA EGOKIA JARRI

**DESKRIBAPENA:** Egungo lanpostuen zerrenda eta lanpostuen eginkizunak kontuan hartuta, ezarrita dauden Hizkuntza Eskakizunak aztertu eta era koherentean ezartzea.

		HADE		187/2017 Dekretua		297/2010 Dekretua	
		HIZKUNTZEN EUROPAKO ERREFERENTZIA MARKA		EHAA 138 zk. - 2017ko uztailek 20		EHAA 219 zk. - 2010eko azaroak 15	
		B 1	B 2	C 1	C 2		
ariza	HABE	B1 maila - 1. maila	B2 maila - 2. maila	C1 maila - 3. maila	C2 maila - 4. maila		
	HAEE - IVAP	1. hizkuntza-eskakizuna	2. hizkuntza-eskakizuna	3. hizkuntza-eskakizuna	4. hizkuntza-eskakizuna		

**EPEA:** 2023

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:**

Ez da egin, oraindik ere ez direlako onartu lanpostuen baloraziorako lanpostuz lanpostu egindako deskribapenak.

## LANGILEAK PLANAZ INFORMATU

**DESKRIBAPENA:** Langileek argi izan dezaten haien jardunean zein irizpide bete behar dituzten informazio-saioak egiten dira sailetan, bai eta langile hasi berriekin ere.



**EPEA:** 2023

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Ez da sailetan bilerarik egin, plana diseinatzen abenduaren amaieran amaitu delako. 2024ko urtarrilean plana onartu ondoren ekingo zaio sailetako komunikazioari.

Langile berriei egin beharreko harrerari dagokionez, 37 lagunekin egin dira saioak, batzuekin banaka eta beste batzuekin taldeka. Euskara-planaren berri eman zaie, eta udal-irizpideak banatu eta azaldu zaizkie.

## LANPOSTU BERRIEI HIZKUNTZA ESKAKIZUNA JARRI

**DESKRIBAPENA:** Udaleko lanpostuei, brigadakoei izan ezik, egiteko eta funtzioen araberako hizkuntza-eskakizuna ezarri behar zaie. Horretarako protokolo bat dago onartua.



**EPEA:** 2023

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** 2023an 15 lanposturi ezarri zaie Hizkuntza Eskakizuna.

## MIKROPLANAK

**DESKRIBAPENA:** Sailez sail euskara plantxoak edo mikroplanak egin eta horietan jarritako helburuak lortzeko ekintzak zehazten ditugu.

herriarrekiko harremanak	ahoz		lehen hitza euskaraz egin beti	
			mahai gainean edo mostradorean Nirekin euskaraz mezua edo antzeko adierazgarria jarri	
	idatziz	Errotuluak		kanpokoan aurrean lankideen artean euskaraz egin
		e-mailak		Euskaraz edo ele bietan jarri. Euskaraz hutsezkoak jarri, posible denean
		tramiteak		e-mailaren sinadurarekin batera Nirekin euskaraz mezua edo antzeko adierazgarria jarri
	ekitaldiak, ikastaroak...			e-mailak euskaraz edo euskaraz eta gartzelariak idatzi
				erantsitako dokumentuak euskaratko izena dutela zaindu
				tramiteetako agiri guztiak euskaraz edo euskaraz eta gartzelariak egon daitezela zaindu
				eskaeretan hizkuntza hautua jasotzeko eremua jartzeko bidea egin
	jendaurrekoak			antolatzeko orduan euskaraz ere egitea kontuan hartu (haur eta gazteentzat euskaraz; gainerakoetan datu soziolinguistikoaren arabera)
			garbi adierazi ekitaldiaren hizkuntza, bai iragartzerakoan, bai ekitaldi hasieran	
web orriak eta sare sozialak			protokoloa jarraitu	
			jarraipena egin	
argitalpenak, kartelak, egitarauak			gurtia euskaraz edo euskaraz eta gartzelariak egin, baita eduki zaharragoak eta finko samarrak direnak (planak, hitzarmenak, ordenantzak...)	
			dokumentuak erantsian euskarazko izena dutenak estekatu	
kanpo harremanak	ahoz		Newslettteraren bi bertsio (euskarazkoa eta ele bietakoa) egiteko aukera aztertu	
			gurtia euskaraz edo euskaraz eta gartzelariak egin	
	idatziz			argitalpenen hizkera eta kalitatea zaindu
				gure kanpoko solaskideak identifikatu
				euskaraz egin lehen hitza epezagun edo berriekin
	kontratu txikiak			solaskide ezagunekin hizkuntza ohiturak euskarara ekarri
				bidaltzen ditugun idatziz euskaraz edo ele bietan egin
				e-mailetan erantsen ditugun dokumentuak euskarazko izena dutela zaindu
				euskaraz bidaltzeko eskatu hornitzaileei eta bestelako solaskideei (proposamen, aurrekontu, fakturak (euskaraz beteta), eskaerak, txostenak...)
				EAEko administrazioetara bidaltzeko agiriak euskaraz hutsean egin/bidali
		Elkartekin euskaraz hutsezko harremana egin, ahal den gutxietan		
			irizpide egokiak jarri	
			irizpideak jakinarazi enpresei	
			irizpide egokiak jarri. Anreta berezia jarri emakidea eta iraupen luzeko kontratuei	

**EPEA:** 2023

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Ekintza-multzo bat proposatu zaie sailei, eta, aurreko mikroplanak kontuan hartuta, zortzi sailtan plana egokitu dute. Sail batzuetan ez da plantxoak egin, plangintzaldi berriko diagnostia egiteko zain. Diagnostia, baina, azarora arte ezin izan dugu egin.

## PARTE HARTZEA

**DESKRIBAPENA:** Langileen parte hartzea sustatzen da erabilera-planeko ekintzetan: Euskararen lan-mahaia, euskararen inguruko ospakizunak (Euskararen eguna, Euskaraldia, Korrika), trebakuntza, hizkuntza-baliabideak, euskaraz zuzen jarduteko gomendioak, informazioa...



**EPEA:** 2023

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Euskararen lan-mahaia: Lau batzar egin dira 2023an zehar. Kide berriak gehitu dira, orain arte etortzen ez ziren sailetatik. Hauek egin dira: aurreko urteko memoria eta mikroplanetarako ekintza posibleak aurkeztu, plan berrirako KEMEN egitura aurkeztu eta landu, hausnarketa egin AMIA batera ekarrita, galdetegia aztertu eta probatu gero langile guztiei bidaltzeko, hizkuntza-irizpide berrituak azaldu, Euskararen egunerako proposamenak egin eta haien parte-hartzea sustatu.

Euskararen eguna: Gaitu egitasmoa bultzatu da (eman zure ahotsa euskarari).

Trebakuntza: Mikroplanetan jarritako helburuak betetzeko eskaintza egin da eta saioak eman dira Gizartekintzan. C2 prestatzeko taldea osatu da udaletxeko langileekin.

Jantzi euskaraz di-da batean: 31 astetan jarri dira hizkuntza-gomendioak Intranetean. Tartean izan dira baliabideen gaineko mezuak ere.

Informazioaren zabalkundea: Euskara ikastera joateko aukeraren berri eman zaie langileei (IVAP), Hizkuntza Eskakizunak egiaztatzeko deialdien inguruko informazioa eman da, Eibarko euskararen agenda jarri da sukaldeko ohar taulan, Egunean Behin jokoaren berri eman da, Pantailak euskaraz ekimena...

## LANGILEEN HIZKUNTZA-GAITASUNA

**DESKRIBAPENA:** Langileak lanpostuaren funtzioak euskaraz betetzeko gai izan daitezzen, euskara-gaitasuna hobetzeko aukeren berri ematen zaie, erabilera egokirako hizkuntza aholkuak ematen zaizkie eta zuzenketa zerbitzua eskaini.



**EPEA:** 2023

**GASTUA:** Barne-baliabideak

**BALORAZIOA:** Zenbait ekintzaren bitartez egin da:

·Maiatzean euskara ikastera joateko IVAPen deialdiaren berri eman zaie langileei. 21 lagunek egin dute eskaera, 2ri ukatu egin zaie kreditua agortuta dutelako, 6k atzera egin dute; guztira 13 lagunek hasi dute ikasturtea urrian.

·Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketetarako deialdien berri eman zaie langileei. Lehenengoan 15 izen-emate egon ziren eta bigarrenerako 9. Inork ez zuen gainditu.

·Gaitasuna hobetzeko beharrak identifikatu dira mikroplanak egitean, eta trebakuntza eskaini da. Bi talde osatu dira Gizartekintzan, batean ofizioak landu eta estandarizatzeko, bestean txostenak lantzeko.

·Hizkuntza aholkularitza eman da. Bi modutara egin da; batetik, zuzentzera edo gainbegiratzera bidalitako testuetan egindako akatsetatik abiatuta, eta, bestetik, Jantzi euskaraz di-da batean izenekoarekin (Intraneteen jarritako hizkuntza gomendioak, 5 minutuko ikastaroen tankerakoak).

·Zuzenketa-aholkularitza zerbitzuan, 227 zuzenketa eskaera izan dira 2023an. Horietatik 11 itzulpena egiteko. 18 sail edo zerbitzuz jo dute zuzenketa zerbitzura; 38 lagunek.

## ZINEGOTZIEN HIZKUNTZA-GAITASUNA

**DESKRIBAPENA:** Arduradun politikoak beren postuaren funtzioak betetzeko gai izan daitezzen, euskara-gaitasuna hobetzeko aukeren berri ematen zaie.



**EPEA:** 2023


**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Agintaldi hasieran ordezkari politikoei hizkuntza-gaitasunaz galdetu zaie. 7k erantzun dute. Beste 8ren gaineko informazioa badugu, aurreko agintaldian erantzun zuten-eta. Denek dute gutxieneko ulermena.

Agintaldi hasierako harrera-saioan eta mezua bidalita eskaini zaie gaitasuna hobetzeko eta sendotzeko aukera euskaltegira joanda edo trebakuntzaren bidez. Batek trebakuntzan jarraitzen du eta beste bat aurten matrikulatu da euskaltegian.

## HIZKUNTZA HAUTUA JASOTZEKO EREMUA

**DESKRIBAPENA:** Hala nahi duen herritarrari euskara hutsezko zerbitzua eman ahal izateko, datu-base eta erregistroetan herritarraren hizkuntza hautua jasotzeko eremua sortzea.



The image shows a screenshot of a web form. The form has a title "Harremanetarako hizkuntza /" and two radio button options: "Euskara" and "Ele bitan". The form is highlighted with a red border.

**EPEA:** 2023

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Ez dugu egin. Zailtasun teknikoak daude espedienteen gestorean eremua txertatzeko.



## MAHAI GAINEKOAK

**DESKRIBAPENA:** Herritarrak eta kanpoko pertsonak artatzeko lekuetan, mostradore eta mahai gainetan adierazgarriak jartzen dira (nahi baduzu euskaraz) bertaratzen dena euskaraz egitera animatzeko.



**EPEA:** 2023

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:**

Mahai gainekoak berriro ditugu eta sail eta zerbitzu guztietan banatu, aurrekoak zaharkituta zeudelako eta leku batzuetatik desagertuta. Gainera, irudia eta mezua aldatu da 2022an Bikain urrezko ziurtagiria lortu genuela aprobetxatuta

## ESPERIENTZIAK EZAGUTU ETA PARTEKATU

**DESKRIBAPENA:** Hizkuntzaren erabilera normalizatzeko estrategia eta baliabideetan erakundeak egunean egoteko, beste erakunde batzuek antolatutako ekimenetan eta foroetan parte hartzen dugu.



**EPEA:** 2023

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Beste erakunde batzuek antolatutako saio, mintegi eta aurkezpenetan izan gara:

·Udalekin foroko mintegi guztietan.

·Hizkuntza Politikaren Sailburuordetzak eskaini dituen aurkezpen guztietan ere bai. Aurten asko izan dira HPSk egindako saioak martxan jarritako ekimenak aurkezteko (Plan estrategiko berria eta KEMEN metodologia, Saregin aplikazioa, metodologia berria probatzeko egindako pilotajeen berri emateko saioa, ESEP berria, Euskara//, Bikain eta beste ziurtagiriak...).

·IVAPek hizkuntza prestakuntza beharrez hitz egiteko antolatutako solasaldian ere parte hartu dugu.

·Euskalitek Hizkuntza kudeaketa praktiken bilatzailea aurkezteko urtero egiten duen saioan.

## KONTRATUETAN HIZKUNTZA KLAUSULAK JARRI

**DESKRIBAPENA:** Kontratutako enpresek euskarazko zerbitzua eman dezaten kontratuetan hizkuntza-klausulak jartzen ditugu.



**EPEA:** 2023

**GASTUA:** Barne baliabideak

### BALORAZIOA:

87 kontratu formalizatu dira aurten, Revascon kontratuen erregistroan jasotakoaren arabera:

·Zerbitzu kontratuak: 46

Kontratu hauen artean era askotakoak daude. Atal honetan sartzen dira proiektuak idaztea eta obren zuzendaritza, aseguruak, aholkularitza eta defentsa juridikoa, lizentziak erostea eta zerbitzu edo asistentzia teknikoa kontratatzea. Horietako batzuk publizitaterik gabe negoziatuak dira eta beste batzuk esparru akordiotik eratorriak. Horien gaineko informaziorik ez dago. Gainerakoetan, guztietan jartzen dira hizkuntza-baldintzak gutxienez orri administratiboan (euskararen legea aipatzen da eta batzuetan errotulazioa nola izan behar den jasotzen da). Herritarrekin harremana dakarten kontratuetan baldintza-orri teknikoan jasotzen dira irizpideak. Bada, ordea, irizpiderik jasotzen ez duena edo irizpide ez oso zehatzak aipatzen dituen (Autobus zerbitzuak, Karate zerbitzua).

·Obra kontratuak: 12

Lege aipamenaz gain, gehienetan errotulu eta oharren gaineko jarraibideak aipatu dira, bai eta ez betetzeen ingurukoak ere.

·Hornidura kontratuak: 17

Batzuen gaineko informaziorik ez dago (esparru akordiotik eratorriak). Gainerakoetan, gehienetan, lege aipamena egin da.

·Beste batzuk: 10

Negoziatuak dira, ez da publizitaterik egiten eta ez dago informaziorik.

·Pribatuak: 2

Barrakak jartzekoa eta igerilekuko taberna ustiatzeko emakida. Azken horretan bakarrik aipatzen da prezioen zerrenda hizkuntza bietan jarri behar dela, baina ez da aipatzen ezer herritarri eman beharreko zerbitzu eta arretaren inguruan.

·Kontratu txikietan, kontratu mota aukeratzean defektuz azaltzen diren hizkuntza-irizpideak jartzen dira kasu ia guztietan.

## KONTRATUETAKO HIZKUNTZA KLAUSULEN JARRAIPENA

**DESKRIBAPENA:** Udalak egiten dituen kontratuetan jartzen diren hizkuntza-irizpideen betetzearen jarraipena egiten da, jarritako irizpideen betatze-mailaren inguruan kontratuaren arduradunari galdetuta.



**EPEA:** 2023

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** 13 kontraturi egin zaie jarraipena, arduradunak betetako galdetegiaren bidez. Orohar bete dira hizkuntza-baldintzak.

Kontratu txikietan aurkeztutako proposamen/aurrekontuari eta fakturari bakarrik begiratzen zaie. Proposamen/aurrekontuen % 13 bakarrik aurkezten dira euskaraz edo ele bietan. Fakturen inprimakia ele bietan izaten da nagusiki (% 81), eta bertan jasotzen den kontzeptua neurri oso handian gaztelaniaz (% 83).

## DIRULAGUNTZETAN HIZKUNTZA KLAUSULAK JARRI

**DESKRIBAPENA:** Dirulaguntza jasotzen duten elkarteek herritarrekiko harremanetan euskara erabil dezaten, dirulaguntza oinarrietan eta hitzarmenetan hizkuntza-klausulak jartzen dira.



**EPEA:** 2023

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** 100 dirulaguntza-oinarri, -deialdi eta hitzarmen egin dira 2023an.

·Izendunak 75 inguru izan dira. Guztietan jarri dira hizkuntza-irizpideak. Jubilatuen Bost elkarteri euskara plana edukitzea eskatu zaie.

·Norgehiagoka araubidez 5 dirulaguntza eman dira; guztietan sartu dira hizkuntzaren inguruko irizpideak, batean izan ezin.

·Ebaluazio bakoiztu bidez (20 inguru izan dira), kirol taldeei jarduera arruntak antolatzeke eta kirol-lehiaketa eta-txapelketetara joateko ematen zaizkien dirulaguntzetan euskara-plana izatea eskatu zaie aurreko urtean bezala. 12 kirol-klubek aurkeztu dituzte planak, Euskara Zerbitzuak ziurtatu ahal izan duen bezala.

## DIRULAGUNTZETAKO HIZKUNTZA KLAUSULEN JARRAIPENA

**DESKRIBAPENA:** Udalak ematen dituen dirulaguntzen oinarrietan eta hitzarmenetan jartzen diren hizkuntza-irizpideen betetzearen jarraipena egiten da, dirulaguntza izendunetako jarduketa memoria eskatuta..

Jarduera: izena eta mota Actividad: nombre y tipo	Data Fecha	Hartzaileak Destinatarios/as	Jardueraren hizkuntza Idioma actividad
"	"	<input type="checkbox"/> Haurrek / Niños/as <input type="checkbox"/> Gazteak / Jóvenes <input type="checkbox"/> Orokorra / General	<input type="checkbox"/> Euskaraz / En euskera <input type="checkbox"/> Gaztelaniaz / En castellano <input type="checkbox"/> Ele bietan / Bilingüe
"	"	<input type="checkbox"/> Haurrek / Niños/as <input type="checkbox"/> Gazteak / Jóvenes <input type="checkbox"/> Orokorra / General	<input type="checkbox"/> Euskaraz / En euskera <input type="checkbox"/> Gaztelaniaz / En castellano <input type="checkbox"/> Ele bietan / Bilingüe
"	"	<input type="checkbox"/> Haurrek / Niños/as <input type="checkbox"/> Gazteak / Jóvenes <input type="checkbox"/> Orokorra / General	<input type="checkbox"/> Euskaraz / En euskera <input type="checkbox"/> Gaztelaniaz / En castellano <input type="checkbox"/> Ele bietan / Bilingüe
"	"	<input type="checkbox"/> Haurrek / Niños/as <input type="checkbox"/> Gazteak / Jóvenes <input type="checkbox"/> Orokorra / General	<input type="checkbox"/> Euskaraz / En euskera <input type="checkbox"/> Gaztelaniaz / En castellano <input type="checkbox"/> Ele bietan / Bilingüe
"	"	<input type="checkbox"/> Haurrek / Niños/as <input type="checkbox"/> Gazteak / Jóvenes <input type="checkbox"/> Orokorra / General	<input type="checkbox"/> Euskaraz / En euskera <input type="checkbox"/> Gaztelaniaz / En castellano <input type="checkbox"/> Ele bietan / Bilingüe
"	"	<input type="checkbox"/> Haurrek / Niños/as <input type="checkbox"/> Gazteak / Jóvenes <input type="checkbox"/> Orokorra / General	<input type="checkbox"/> Euskaraz / En euskera <input type="checkbox"/> Gaztelaniaz / En castellano <input type="checkbox"/> Ele bietan / Bilingüe

## DIRULAGUNTZAK

**EPEA:** 2023

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:**

- Izendunak: 19 onuradun ingururen jarduketa-memoria eskatu da eta horrela egin da betetze-mailaren jarraipena. Plana eskatu den kasuetan ere jarduketa memoria betetzeko eskatu da. Antolatzen dituzten jarduera gehien hartzaillea orokorra da eta jarduerak ele bietan egiten dituztela esaten dute, hartzailleak haurrek eta gazteak diren kasu batzuetan izan ezik. Haur eta gazteentzako jarduera gehienak euskaraz egiten dituzte. Hedapenerako erabiltzen dituzten kartel eta abarrak ele bietan egiten dituzte. Kasu batzuetan ez dago garbi zein hizkuntzatan egiten duten whatsapp bidezko zabalkundea eta sare sozialen bitartez egiten dutena.
- Norgehiagoka araubidez emandakoak: ez da betetze-mailaren jarraipena egin.
- Ebaluazio bakoitzu bidez kirol taldeei jarduera arruntak antolatzeko eta kirol-lehiaketa eta-txapelketetara joateko ematen zaizkien dirulaguntzetako betetze mailaren ebaluazioa 2024ko hitzarmenari lotutako plan berriko ekintzak zehazteko orduan egingo da. 2023an aurkeztu dute aurreko urteko/ikasturteko planaren balorazioa. Arlo askotan % 100ean bete da jarritako helburua, baina badira ohituraz gaztelaniaz egiten diren batzuk, esaterako batzar orokorrak. Bestalde, gaitasunak eta ohiturak baldintzatzen dute entrenatzaileek entrenamenduetan erabiltzen duten hizkuntza; ondorioz, kasu batzuetan ez da lortu jarritako helburua.

## IRUDIAREN JARRAIPENA

**DESKRIBAPENA:** Erakundearen irudia osatzen duten elementuetan (errotulazioa, ikus-entzunezkoak, argitalpen, iragarki eta publizitatea, agerraldi instituzionalak eta webgune eta sare sozialak) hizkuntza-irizpideak betetzen diren zaintzen da eta jarraipena egiten da.



**EPEA:** 2023

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Errotulazioa ele bietan egiten da % 95ean eta euskara hustean %5ean. Bikainera aurkezteko, ebidentziak jaso genituen, eta horiek erabili ditugu plangintzaldi berrirako diagnostikoan.

Argitalpenei dagokienez, ele bietan egin dira guztiak (Kultur-gida, egutegia, Sanjuanetako egitaraua; Andretxeko eskaintza...). Ekitaldien kartelak (tailerrak, erakusketak, azokak, jardunaldiak) ere euskaraz edo ele bietan egin dira.

Agerraldi instituzionaletan bete beharreko jendaurrekoetarako protokoloa betetzen den zaintzeko modua bilatzea zen aurtengo helburuetako bat, baina ez dugu egin.

Webgune eta sare sozialetan ele bietan jarri da ia guztia, eta zaindu da testuen kalitatea. Zuzenketak egin dira akatsak aurkitu direnean.

Kexak eta ez-betetzeak erregistratzen ditugu eta elementu hauei dagokienez aipagarriak dira albiste bateko argazki oina gaztelaniaz bakarrik egotea eta webguneko esteka batean gaztelaniazko tokira eramatea. Bestalde, kontratzailearen profilean atalean bi kontraturen pleguak gaztelaniaz bakarrik igo dira eta beste kontratu baten inguruko txostenak ere gaztelaniaz argitaratu dira. Kasu guztietan, dagokion arduradunari jakinarazi zaio eta ez-betetzea konpondu da edo konpontzeko bidean jarri da.

## HIZKUNTZA ESKUBIDEAK BERMATZEKO JARRAIPENA

**DESKRIBAPENA:** Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko jarraipena egiten da kexen bitartez. Jasotako kexaren berri ematen zaio arduradunari eta konpontzeko zer neurri hartu aztertzen da.



**EPEA:** 2023

**GASTUA:** Barne baliabideak

### **BALORAZIOA:**

7 kexa erregistratu dira herritarrekiko harremanei dagokienez.

Euskaraz idatzitako mezu elektronikoko bati gaztelaniaz erantzun zaio.

Bi zerbitzutan telefonoa gaztelaniaz hartu da.

Herritarrentzat jarritako ohar batean ez da hizkuntzen ordenari buruzko irizpidea bete.

Herritarren esku jarritako dokumentu batzuk gaztelania hutsean egin dira.

Erakusketa batean jarritako panelak gaztelaniaz bakarrik egin dira.

Kaleko obra batzuetako kartelak gaztelaniaz bakarrik jarri dira.

Hitzarmen baten bitartez elkarte batek udal laguntza baten gainean informazioa emateko zerbitzuan euskaraz ez dakien pertsona batek egin dio arreta herritar bati.

Herritarrekiko harremanetarako hizkuntza-irizpideak gogorarazi zaizkie inplikaturako langileei, eta kasu batean, sentsibilizazio- eta trebakuntza-saioak eman dira.

Inprimakietan herritarren hizkuntza-hautua jasotzeko eremua txertatzeko ahalegina egin da eta aztertzen bidean jarri da, baina oraindik ez da inplementatu.



## EKITALDI ETA IKASTAROEN JARRAIPENA

**DESKRIBAPENA:** Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz ere eskaintzen diren zaintzen eta jarraitzen da, eta eskaintza prestatzean hizkuntzaren kudeaketa (datu soziolinguistikoaren arabera gutxieneko batzuk euskaraz ere antolatzea) presente izan behar dutela gogorarazten zaie antolatzaileei.



**EPEA:** 2023

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Udalak antolatutako ikastaro eta tailerren % 49 euskaraz izan dira; % 33 gaztelaniaz eta ele bietan % 18. Haur eta gazteentzat antolatzen diren ia guztiak euskaraz eskaintzen dira. Helduentzat antolatzen direnetan erdia inguru izaten da euskaraz, eta beste erdia gaztelaniaz.

Bestalde, antzerki emanaldien % 39 euskaraz izan dira, hitzaldien % 48, eta zinearen % 13.

## BILERETAKO HIZKUNTZA-ERABILERA

**DESKRIBAPENA:** agintaldi berriaren hasieran batzordeak osatutakoan hizkuntza-erabileraren gaineko erabakia hartzeko eskatzen zaie.



**EPEA:** 2023

**GASTUA:** Barne baliabideak

### **BALORAZIOA:**

ENBA batzordetik diktamena bidali da 21 batzordetara ahozko eta idatzizko harremanetan kideek nagusiki zer hizkuntza erabiliko duten erabakitzeko. 7 batzordek erantzun dute.

Erantzundako batzordeetako batean euskaraz egingo dituzte batzarrak, bitan gaztelaniaz, eta gainerakoetan euskara nahiz gaztelania erabiliko dute, kide guztiek ulertzen baitute.

Batzordeetan aurkeztuko dituzten idatziei dagokienez, batean euskaraz aurkeztuko dira bertan sortutako dokumentua baldin bada, lautan euskaraz, gaztelaniaz edo ele bietan, eta bitan gaztelaniaz edo ele bietan.

Bileren deiak, guztiek, batek izan ezik, ele bietan egingo dituzte. Beste horrek euskara hutsean.

Aktak denek egingo dituzte ele bietan, bik izan ezik. Horietako batek euskaraz egingo du, baina norbaitek behar izanez gero gaztelaniara itzulita emango zaio; besteak gaztelaniaz egingo du.

## EUSKARAZKO HARREMANA ENPRESA PRIBATUEKIN

**DESKRIBAPENA:** Enpresa pribatuekin eta udalaren hornitzaileekin harremanak gero eta gehiago euskaraz izan daitezen, kontratuetako hizkuntza-irizpideetan "harremanak administrazioarekin" atala txertatzen hasi gara.



**EPEA:** 2023

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** 2023an formalizatutako zerbitzu kontratuetako bostetan sartu da administrazioarekiko harremanak zein hizkuntzatan izan behar diren edo izatea nahi den jasotzen duen atala. Gainerako kontratu motatan ez.

Kontratu txikietan defektuzko testuan guztietan azaltzen da fakturak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztuko behar direla eta sail kontratatzailearekiko ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz izango direla ahal den guztietan.

## PRESTAKUNTZA EUSKARAZ

**DESKRIBAPENA:** Udaletik antolatutako prestakuntza-saioak euskaraz izan daitezzen ahalegintzen gara.



**EPEA:** 2023

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Prestakuntza-jarduera guztien % 36 inguru egin da euskaraz eta beste % 4 ele bietan.

Mantenimenduko lantaldekoak kontuan hartu barik, gainerako langileek egindako ikastaroen % 38 izan dira euskaraz eta beste % 4 ele bietan.


Ikastaro transbertsalen kasuan (langile guztiek ezinbestean egin beharrekoak), handiagoa da euskarazkoen presentzia: euskaraz izan dira % 55 eta ele bietan % 11.

Euskarazko prestakuntza antolatzeko ahalegina egiten bada ere, askotan ez dago udalaren esku hori horrela izatea; izan ere, asko egiten dira egokituta beste erakunde batzuek (IVAP, Eudel, Eusko Jaurlaritza, Euskalit, Gipuzkoako bazkundera) egiten duten eskaintzara. Bestalde, mantenimenduko lantaldekoentzat izaten diren batzuk gaztelaniaz egin behar izaten dira, denek ez baitakite euskaraz. Edozein modutan, aurren hiru ikastaro euskaraz egin dituzte euskaraz dakiten brigadako langileek.



## BALIABIDE INFORMATIKOAK

**DESKRIBAPENA:** Euskarazko bertsioen erabilera areagotzen ahalegintzen gara.



**EPEA:** 2023

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Ekintzetako bat zen astelehenetan langileei bidaltzen zaizkien aholkuen artean baliabide informatikoak euskaraz erabiltzea sustatzekoak tartekatzea, baina bakarria izan da horren ingurukoa.

Mikroplanetan sail batzuek ekintzen artean jarri dute programa eta aplikazio batzuk (Evalos erlojuen programa eta Impulsa espedienteen gestorea) euskaraz erabiltzea. Oraindik ez da mikroplanen ebaluazioa egin eta ez dakigu bete duten.

Aurreikusitako beste ekintza bat zen langile berriei egiten zaien harreran galdetzea zein hizkuntzatan duten instalatuta office paketea. Ez da erregistro formalik egin, baina sumatutakoa da gehienek gaztelaniaz dutela.

Euskararen erabilera normalizatzeko plan berria egiteko diagnostikorako galdetegian langileek adierazi dutenaren arabera, aukeran duten euskarazko bertsioen erabilera % 43koa da.

Aipatzekoa da aurtengo urtean langileen esku jarritako tresna informatiko batzuk (PDFak editatzekoa eta kanpoko erabiltzaileekin fitxategiak partekatzekoa) euskaratu egin dela eta horrela zabaldu dela langileen artean.

## IDATZIAK EUSKARAZ SORTU

**DESKRIBAPENA:** Testu idatziak euskaraz sortzeko trebakuntza eskaintzen dugu.



**EPEA:** 2023

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:**

Trebakuntza bakarra eskaini da honen inguruan: gizarte langileei zuzendutakoa txosten sozialak euskaraz sortzeko. Trebakuntzari hasiera eman bazaio ere behar baino lehenago amaitu da, eta idatziak egiteko jaso dituzten pautak eta tresnak ondo baloratu badituzte ere, ez dakigu zenbateraino eraman den praktikara.

Euskararen erabilera normalizatzeko plan berria egiteko diagnostikorako galdetegian langileek adierazi dutenaren arabera, % 54k euskaraz sortzen dituzte euskaraz edo ele bietan zabaldu beharreko idatziak. Pentsatzeko da, baina, testu motz eta errazetan betetzen dela gehien bat; izan ere, txostenen kasuan, batez ere barruko txostenen kasuan, askoz txikiagoa da euskaraz sortzen direnen kopurua.

# EUSKARAREN SUSTAPENERAKO EKINTZA PLANA



## ZORIONAK DIPTIKOIA

**DESKRIBAPENA:** Eibarren umeak erregistratzen dituzten familiei Pegoran “Zorionak” diptikoa banatzen zaie. Bertan eredu linguistiko desberdineko gurasoei aholkuak ematen zaizkie umeekin eduki behar duten jarrerari buruzkoak.



**EPEA:** 2023

**GASTUA:** 2016ko aurrekontukoa 907,50€ (3.000 ale)

**BALORAZIOA:**

2023 urtean 172 ume jaio dira, 75 neska eta 97 mutil

## EUSKARAZKO PRODUKTUEN KATALOGOA

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak Eibarko ikastetxeetan San Andres inguruan Euskarazko produktu en katalogoa banatzen du. Katalogo hau Euskal Herri osorako egiten da eta Eibarko udalak ale batzuk erosten ditu.



**EPEA:** 2023ko azaroa

**GASTUA:** 3.315 €

**BALORAZIOA:**

2.800 katalogo banatu dira Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan eta 1.700 liburu bereizgarri DBHko ikastetxeen bitartez

## HAZI HEZI ALDIZKARIAREN BANAKETA

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak 2 urteko umeen geletako gurasoei Hazi Hezi aldizkariaren urtebeteko harpidetza oparitan jasotzeko aukera ematen die. Interesatuak izena eman behar dute.

Horretaz gain, ume jaioberria erregistratzera doazen familiek Hazi Hezi 0 alea doan jasotzen dute.



**EPEA:** 2023

**GASTUA:** 450€ harpidetza

**BALORAZIOA:**

23 gurasok eman dute izena urtebeterako harpidetza doan jasotzeko. Iaz baino guraso gehiagok:

- 2 La Sallekoak
- 21 Mogelegekoak

## INFOGRAFIA *FAMILIA HIZKUNTZA UME ELEANITZAK*

**DESKRIBAPENA:** *Ume eleanitzen gurasoentzako eskuliburua* infografia bilakatua. Paperean dagoen informazio garrantzitsua infografia bidez (animazio bideoa) ematea da helburua.

Infografia hori ikastetxeek gurasoekin egiten dituzten bilera orokorretan erabili ahal izango dute, udalaren web gunean eta ikastetxeen web eta blogetan egon daiteke ikusgai.

Whatsapp bidez banatzeko bertsio arina ere badago.

<https://www.eibar.eus/eu/bideoak/euskaratik-eleaniztasunera-infografia>



**EPEA:** 2023ko iraila-urria

**GASTUA:** 7.151,71€ 2019an egindakoa

**BALORAZIOA:**

Ikastetxeek gustura hartu dute multimedia materiala. Bideo honen bidez gurasoek 5'an funtsezkoa den informazioa jaso ahal dute. Liburuxkaren formatoak lan handiagoa eskatzen zien irakasleei eta baita familiei ere.

Whatsapp bidez erraz banatzeko bertsioa ere egin eta zabaldu da.

## HH ETA LHKO IKASTETXEEKIN LANKIDETZA BILERAK

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udaleko Euskara sailaren eta HH eta LHko ikastetxeen artean egiten diren bilerak, lankidetzan hainbat egitasmo proposatzeko, sustatzeko, ebaluatzeko. Guztira 7 ikastetxe daude eta denak dira mahaiko kide.



**EPEA:** 2022

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:**

Aurreikusitako bilerak egin dira. Asistentzia % 100ekoa izan da.

<b>Data</b>	<b>Asistentzia</b>
2023/01/24	5 ikastetxe
2023/05/23	5 ikastetxe
2023/06/13	6 ikastetxe
2023/09/19	4 ikastetxe

## DBH ETA BATXILERGOKO IKASTETXEEKIN LANKIDETZA BILERAK

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udaleko Euskara sailaren eta DBH eta Batxilergoko ikastetxeen artean egiten diren bilerak, lankidetzan hainbat egitasmo proposatzeko, sustatzeko, ebaluatzeko. Guztira 3 ikastetxe daude, eta denak dira mahaiko kide. Ikastetxe publiko bakarra dago 3 egoitzatan banatua, eta 2 kontzertatu.



**EPEA:** 2023

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:**

Aurreikusitako bilerak egin dira. Asistentzia % 100ekoa izan da.

**DATAK:**

2023/01/31

2023/06/27

2023/09/26

2023/10/31

**ASISTENTZIA**

3 ikastetxe

3 ikastetxe

3 ikastetxe

3 ikastetxe

## GU ERE BERTSOTAN

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen bidez ikastetxe guztietan eskaintzen duen bertsolaritza eta ahozkotasuna lantzeko egitasmoa. Udalak eta ikastetxeek finantzatua. Ikastetxe gehienetan LH5 eta 6 mailetan burutzen da. Egitasmoak ikasturte osoa hartzen du, urrian hasi eta maiatzaren amaieran bukatzen da. Bertsozale lantzeko saioa astero izaten dute eskola orduetan, aste batean bertsozale elkarteko irakaslea joaten da gelara eta hurrengo astean tutorearekin lantzen dute.



**EPEA:** 2022-2023 ikasturtea

**GASTUA:** 14.909,92€

**BALORAZIOA:** Eibarko Lehen Hezkuntzako 6 ikastetxe hartu dute parte. Egitasmoa 19 ikastaldetan burutu da. 418 umek landu dute bertsolaritza. Umeei bertsolaritzaren bitartez umore eta jolas giroan bertsoaren bitartez euskara eta ahozkotasuna lantzen dute. Bertsozale elkarteko irakasleak oso profesionalak dira eta umeei duten harremana oso egokia da. Umeen bertso jaialdiak Coliseoan 3 egunetan egin dira, eta aretoa bete egin da.

## JIRA BUELTAN MATERIALAREN LANKETA

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak Badihardugurekin lankidetzan Jira bueltan kanta eta jolasen liburuxka-DVDa sortu zuen.

AKEBAko Transmisioa mahaia material horren lanketa egiteko eskoletako jangelen jolas orduak aprobetxatu nahi izan ditu, gune informaletan ikasgelatik at ikasleen arteko euskararen erabilera sustatzeko. Astixa Animazio Zerbitzuko begiraleek 2 saioko tailerrak eman dituzte ikastetxeetan, jangeletako hezitzaile eta HH5 mailako eta LHI mailako umeekin jolasak lantzeko.



**EPEA:** 2023 otsaila-apirila

**BALORAZIOA:** Astixako hezitzaileak ikastetxe guztietatik pasatu dira jolasak eta abestiak irakasteko. Saioak hasi aurretik, jorratu beharreko jolasen azalpenak jantokiko arduradunei banatu zaizkie beraiek aurretik ere landuta izan ditzaten.

Guztira 60 saio egin dira, eta Astixako 2 hezitzaile aritu dira zeregin horretan.

2023ko otsailaren 13tik martxoaren 22ra, asteleheneetik ostiralera, 12:00etatik 14:30era bitartean eman dira saioak. Jira BueLTan liburutik 7 jolas aukeratu dira, 5 7 urteko umeentzat egokienak. Jantokiko hezitzaileak umeekin batera murgildu dira jolasetan. Umeen harrera, orokorrean ona izan da, eta saioa aurrera joan ahala gusturago aritu dira proposatutako jolasetan.



## MUSIKALA

**DESKRIBAPENA:** Ikuskizun multi-disziplinari bat (dantza, gidoigintza, antzerkia, musika, jantzigintza, kantua, komunikazioa, kudeaketa...) antolatzekeo prozesuak dakartzan onura guztiak dituen, Eibarko nerabe eta gazteen egituratze sozial eta linguistikorako tresna ezin hobea da musikala.

Eibar BHI-Isasi ikastetxean horrela ikusi dute, eta Hauspoa programaren barruan sartu dute musikala. Horrela, ikasleek euskara modu ludikoan erabiltzen dute, eremu akademikoetatik at, eta bide batez kohesioa eta talde identitatea indartzen da.

DBHko ikasleek urritik maiatzera bitartean antzerki, kantu eta dantza tailerretan musikala prestatu ondoren, Coliseo antzokian hainbat emanaldi burutzea da helburua. Andrea Covadonga aktore eta kantaria izan da tailer horien gidari.




**EPEA:** 2023ko maiatzaren 10ean

**GASTUA:** 6.000 €

**BALORAZIOA:** 30 ikasleek hartu dute parte, 26 neska eta 4 mutil, nagusiki DBH1ekoak aritu dira musikala prestatzen, Andrea Covadongaren gidaritzapean ikastetxeko irakasleen eta guraso elkartearen laguntzaz

## EUSKARA ZINE ARETOETARA 2022-2023

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak ikastetxeei euskarazko zine eskaintza egiten die eskola orduetan. Eskaintza hori TINKO euskara elkartearen bitartez. Udala eta ikastetxeen artean finantzatzen da. Filmak Coliseoan ematen dira 14:45-16:30 bitartean.



**EPEA:** 2022-2023 ikasturtea

**GASTUA:** 3.291 €

**BALORAZIOA:** TINKOk 9 filma eman ditu. Filme batzuk Coliseoan eman dira eta beste batzuk ikastetxean bertan. 2.446 ikusle izan dira. Ikastetxeka honako hau izan da filmen eskaera:

IKASTETXEAK LH:

- San Andres 5 filma
- Amaña 3 filma
- Urkizu 5 filma
- La Salle Isasi 5 filma
- Arrateko Andra Mari 3 filma
- Aldatze 4 filma

IKASTETXEAK DBH

- Eibar BHI 2 filma
- La Salle Azitain filma 1

## ONGI ETORRI EUSKARARA

**DESKRIBAPENA:** Eibarrera bizitzera etorritako atzerritarren seme-alabei euskarazko errefortzu saioak ematen zaizkie. Udalak finantzatzen du. Ordu eta laurdeneko bi saio izaten dira astean, Indianokua gaztelekuan eta taldea osatuz gero ikastetxean bertan.

Ikasturte honetan ere ikastetxean bertan taldeak osatzea bultzatu da. Eibar BHI'n hauspoa egitasmoaren barruan eskaini da.



**EPEA:** 2022-2023 / 2023-2024 ikasturteak

**GASTUA:** 16.250 €

**BALORAZIOA:** 2022-2023 ikasturtean 6 talde osatu dira. 3 talde Eibar BHI Isasin, 2 talde Jardinetan eta talde 1 Gaztelekuan La Salle eta Aldetzeko ikaslez osatua. Guztira 63 ikasle.

2023-2024 ikasturtean 6 talde osatu dira. Guztira 50 ikasle. 3 talde Eibar BHI Isasin, talde 1 Jardinetan eta 2 talde Gaztelekuan La Salle eta Aldeko ikaslez osatuak

## LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXEEKIN LANKIDETZA BILERAK

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udala Lanbide Heziketako ikastetxeekin (Armeria Eskola eta UNI) eta ...eta kitto! Euskara Elkartea ere lankide delarik bilerak egiten dira elkarrekin Lanbide heziketan euskararen erabilera sustatzeko.



**DATAK:**

2023-02-21

2023-05-21

2023-06-27

**ASISTENTZIA:** Denok

**EPEA:** 2023

**GASTUA:** Baliabide propioak.

**BALORAZIOA:** Baliagarria izan da Lanbide Heziketako zentroekin bilera bereiztuak egitea. Euren asistentzia eta inplikazioa oso ona izan da. Aukera izan dugu zentro horietarako ekintza espezifikoak diseinatzeko.



## TXIKITASUNEAN HAUNDI MOTIBAZIO SAIOAK DBH1

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak DBH 1eko Ikastalde guztiei motibazio saioak eskaintzen dizkie. Eskolan bertan eskola orduetan izaten da, Udalak finantzatzen du, eta Eta Kitto euskara elkarteak eskaintzen ditu. Helburua euskaraz egitera animatzea da. Tailerra ordu eta erdiko bi saioak osatzen dute



**EPEA:** Urritik abendura bitartean egin dira saioak.

**GASTUA:** 2.995 €

**BALORAZIOA:** 380 ikaslek jaso dituzte motibazio saio hauek. Eibarko DBH1 maila duten ikastetxe guztietako ikasleek hartu dute parte. Guztira 14 taldetan eman dira saioak. Orohar ikasleek saioari buruz egin duten balorazioa ona da.

## GAZTELANIAREN ABANTAILAK

**DESKRIBAPENA:** DBHko ikastetxeekin lankidetzan Eibarko DBH 3ko ikasleekin hizkuntza asertibitatea, kontzientzia linguistikoa eta hizkuntza portaera ekologikoa lantzeko Gaztelaniaren abantailak izeneko proiektua bideratu da. Gazteen hausnarketan berri Alkateari eta udala osatzen duten alderdi guztietako ordezkariak eman zaie.



**EPEA:** 2023ko martxo-ekaina


**GASTUA:** 8.660€

**BALORAZIOA:** Eibar BHI ikastetxeak eta Aldatze ikastetxeak hartu dute parte. Saiok arrakastatsuak izan dira. Ikasleen hausnarketek kezka sortarazi dute udaleko ordezkari politikoen artean eta hurrengo ikasturte bilerara DBHko ikastetxe guztiek lanketa berezia egingo dute, euskara zerbitzuak bideratua.

## MINTZA ON!

**DESKRIBAPENA:** Lehen Hezkuntzako 3, 4, 5 eta 6 mailetakoko umeei eskola orduraz kanpo euskara lantzeko online errefortzu saioak eskaintzen zaizkie Euskara Zerbitzutik ebete enpresaren bidez.

Egitasmoa eskolatik kanpo euskaraz hitz egin edo euskara entzuteko aukera gutxi duten umeei zuzendua dago.



**EPEA:** 2023ko martxoa - abendua

**GASTUA:** 2.950€

**BALORAZIOA:** Udaberriko ikastaroan 25 umek hartu dute parte 4 taldetan banatuta. Udazkeneko ikastaroan 35 ume aritu dira 6 taldetan banatuta. Ikasleen eta familien balorazioa oso ona izan da.

## BERTSOLARITZA INKLUSIO BIDE

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak Gipuzkoako Bertsozale Elkartearekin lankidetzan Eibar BHIko DBH 1 mailako ikasleei “Bertsolaritza inklusio bide” egitasmoa eskainiko die. Proiektu komunitarioa izan da. Bertsolaritzak kulturaren, hizkuntzaren, musikan eta trebetasun pertsonal/sozialetan egiten du ekarpena. Eibarren garrantzi berezia du hizkuntzaren lanketa ludikoak eta euskal kulturara gerturatzeko egitasmoa izateak.



**EPEA:** 2022/2023 ikasturtea

**GASTUA:** 968,00 €

**BALORAZIOA:** Lehen aldiz burutu da Eibar BHI ikastetxean “Proiektu komunitarioa” ikasgaiaren barruan “Bertsolaritza inklusio bide” proiektua. Eneko Beretxinagak gidatu du eta bukaeran 2 bertso emanaldi aman dira Odei Barroso eta Alaia Martín bertsolariekin.





## ALPISTEGIA

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak LH 5eko ikasleentzako motibazio-saioak antolatzen ditu. Eskola orduetan izaten da. 5 saio egingo dira, 6 Portalean eta bestea Iturburuan. Udalak finantzatzen du. Helburua da euskaraz gozatzea eta hizkuntzarekin jolas egitea da.



**EPEA:** 2023ko martxoa

**GASTUA:** 4.900 €

**BALORAZIOA:** Ikasleek asko parte hartu dute emanaldian zehar eta balorazioa oso positiboa izan da.

### **Martxoaren 21ean Areto nagusian**

10:00 Urkizu

11:15 Aldatze

### **Martxoaren 22an Areto nagusian**

10:00 San Andres

11:15 La Salle

### **Martxoaren 23an Areto nagusian**

10:00 Amaña


11:15 Arrateko Andra Mari

### **Martxoaren 24an Iturburun**

11:00 Mogel-Iturburu

## BAGABIGAHIGA EMANALDIA

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak antolatzen du DBH 4ko ikasleei musika emanaldia Eñaut Elorrieta eta Mikel Markezen eskutik. Eskola orduetan izaten da, Coliseoan. Udalak finantzatzen du. Helburua da euskal musika ezagutzea, zaletasuna sortzea eta euskal erreferenteak sortzea.



**EPEA:** 2023ko maiatzaren 3an 9:00 // 11:00 // 13:00

**GASTUA:** 968,00 €

**BALORAZIOA:** DBHko ikastetxe guztiek hartu zuten parte 3 emanalditan banatuta. Guztira 250 ikaslek hartu dute parte. Balorazioa oso positiboa izan da, eta ikasleen jarrera oso ona.

## ARRATEKO JARDUERAK DBH2

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak DBHko Eibar BHI ikastetxearekin lankidetzan bertako DBH2ko ikasleentzako egonaldia antolatu du Arraten. Eskola mapa berriaren arabera antolatu dira ikastetxe publikoak, eta horrek eragindakoko egoera berrietara hobeto egokitzeko helburua ere badu egonaldiak (talde izaera, zentro desberdinetatik etorritako ikasleen arteko bizikidetzatza aberatsagoa izatea). Baina batez ere, ikastetxetik kanpo, inguru naturalean, jolas eta talde jardueren bitartez euskaraz gozatzeko aukera eskaintzea da helburua.



**EPEA:** 2023ko udaberrian

**GASTUA:** 7.857 €

**BALORAZIOA:** DBH2ko 8 talde egon dira Arraten (apirilaren 24tik maiatzaren 16 bitartean), egunean gela bat, 2 irakaslerekin eta Astixako 2 begiralerekin. Astixak dinamizatu eta koordinatu ditu eguneko jarduerak 08:30etik 17:00etara bitartean. Jardueren artean: Gerra Zibileko Eibarko Fronteari buruzko Interpretazio Zentroa bisitatu; inguruko baserrien izenak, toponimoak, zuhaitzen izenak... ikasi; euskararekiko sensibilizazio eta motibazioa lantzeko bertso tailerra, inguruko bertsolari gazteek emana; talde dinamikak...

Ahal izan den guztietan oinez igo dira taldeak Arratera, eta oinez jaitsi; eguraldiagatik ezinezkoa izan denetan, autobusa izan dute. Jarduerak ere kanpoan egin dira gehienetan, baina ezin izan denean, Arrateko aterpetxea erabili da.

## MOTIBAZIO SAIOAK LANBIDE HEZIKETA

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak Lanbide Heziketako A eta D ereduko ikastaldeei motibazio saioak eskaintzen dizkie. Eskolan bertan eskola orduetan izaten da, Udalak finantzatzen du. Helburua da euskara ikastera animatzea da eta dakitenak erabiltzera animatzea.



**EPEA:** 2023ko iraila-urria

**GASTUA:** 5.134,00 €

**BALORAZIOA:** Lanbide Heziketako Armeria Eskolako 13 taldek eta UNIKo 11 taldek jaso dute. Balorazioa orohar ona izan da. Eta interesa adierazi duten ikasleek euskaltegietara jo dute euskara ikastera.

## D EREDUA LANBIDE HEZIKETAN

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak Lanbide Heziketako Ameria Eskola eta UNI Eibar-Ermua ikastetxeekin lankidetzan dihardu LHn D eredua sustatzeko.

**Lana topatzeko aukera handiagoa**  
Mayor empleabilidad


**Abantaila akademikoak**  
Ventajas académicas

**B1|B2**

**+B1|B2**

**Animatu zaitetz!**

AmeriaEskola<sup>®</sup> UNI



**EPEA:** 2023ko otsaila-iraila

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** 2023an honako ekintzak burutu dira:

- Alkatearen gutuna D eredua gomendatuz Lanbide Heziketako ikaslegaiei eta euren familiei.
- D ereduaren aldeko diptikoa atara da ikastetxeen Ate Irekien egunetan banatzeko eta ikaslegaiei bidaltzeko
- Eta Kitton bideo erreportaia egin dute Lanbide Heziketako ikastetxe bietako zuzendaritzakoein.

<https://etakitto.eus/berriak/hezkuntza/129416.html>



## • OINARRIZKO EUSKARA IKASTAROA DEBABARRENA INTEGRA / BAT EGINEZ

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udaleko Euskara Zerbitzuak udal euskaltegiarekin eta Eibarko AEKekin lankidetzan oinarrizko euskara ikastaroa ematen dute Armeria Eskola elkarteak bideratzen duen "Debabarrena Integra Bat eginez" egitasmoan txertatuta.



**EPEA:** 2023ko urria 2024ko otsaila

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Udaleko euskara Zerbitzuaren eta Armeria Elkartearen arteko lankidetzan oso ona izan da. Euskara saioetan 12 ikaslek hartu dute parte eta 7k oso ondo jarraitu dute formakuntza.

Ikasleek hasieratik jarrera ona erakutsi dute eta arrakastaz burutu dute ikastaroa.

## EUSKARA SAIOAK LANBIDE HEZIKETAN

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak Lanbide Heziketako Ameria Eskola eta UNI Eibar-Ermua ikastetxeekin lankidetzan 60 orduko euskara klaseak eskaintzen ditu Erdi mailako zikloetan. Helburua euskarazko oinarrizko ezagutza jasotzea da ezer ez dakitenen kasuan. Euskara ezagutzen dutenen kasuan euskara eta lan-mundua lotzea da xedea.



**EPEA:** 2023ko urria-2024ko otsaila

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Lanbide Heziketako UNI Eibar-Ermuako "Jarduera fisiko"etako taldeetakoek jaso dituzte 60 orduko euskara klaseak.

## EUSKALTEGIEN LAN-MAHAIA

**DESKRIBAPENA:** Euskara Zerbitzuak Udal Euskaltegiarekin eta Eibarko AEKrekin euskalduntzea sustatzeko egitasmo eta proiektuak bideratzeko lan-mahaia dinamizatzen du.



**EPEA:** 2023

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Honako egitasmo hauek bideratu dira:

Euskalduntze kanpaina bateratua guraso, ikasle, jubilatuz, merkatariz eta enpresetako langileentzat

Gurasoak ere eskolara egitasmoa

Debabarrena integra-Debabarrena bat eginez egitasmoko euskara ikastaroa

UNI eta Armeria eskolako euskara klaseak

EPAko euskara klaseak

"Hitzen nahaste berrastea" lehiaketa





## GURASOAK ERE ESKOLARA EGITASMOA 2023-2024

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak, udal euskaltegiak, AEK-k eta HH eta LHko ikastetxeek lankidetzan 100 orduko euskara ikastaroak eskaini dituzte ikastetxeetan. Eskaintza ikastetxe bakoitzak egin du bere gurasoen perfila kontuan hartuta egokien iruditu zaien moduan. Hauek ere matrikularen %50 ordaindu dute ikastaroa. Astean 4 eskola ordu jasoko dituzte eta helburua euren seme-alaben euskalduntze prozesuan eurek ere euskara ikasita laguntzea da.

**Gurasoak ere eskolara 2023-2024**  
Cursos de euskera para padres y madres

¿No sabes euskera y te gustaría aprender un poco?

¿Sabes un poco de euskera, pero querías mejorar tu nivel?

Euskaraz badakizu, baina gehiago ikasi nahi duzuzu?

Betiko zalantzak argitu eta akatsak zuzendu nahi dituzu?

Astean 2 egun. 66 € ikasturte osoa.  
Epeka ordain daiteke.  
Kontsultatu dirulaguntzak.  
**2 días a la semana. 66 € curso completo.**  
Posibilidad de pagar a plazos.  
Consultar ayudas.  
Informazio gehiago/ Más información  
Euskara Zerbitzua:  
euskara@eibar.eus / 943708426

**EPEA:** 2023ko urritik 2024ko maiatzera

**GASTUA:** Deskontuen zenbatekoa kanpaina berezien fitxan dago sartuta.

**BALORAZIOA:** Kanpaina hau egiten den 8. ikasturtea da eta 29 gurasok eman dute izena eta 2 talde osatu dira. Saioak Portalean ematen dira.

Ikasturte honetan ere talde bakoitzean ikastetxe desberdinetako gurasoak egon dira, eta taldea aukeratzeko erabili den irizpidea, eguna, ordutegia, maila izan dira.

Saioak Portalen izatea auzo batzuetako gurasoentzako eragozpena izan da, ikastetxetik urrun gelditzen baitzitzairen.

Ikastaro hauen bitartez gurasoek euskara ikasteaz gain, euren seme-alaben aurrean hizkuntzari dagokionean izan beharreko jarrera egokiak ere landu dira, baita gurasoentzat oso praktikoak izan daitezkeen beste gai batzuk ere, esaterako nola lagundu etxeko lanekin.

## EUSKALTEGIEN LEHIAKETA: HITZEN NAHASTE-BORRASTEA

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak euskaltegi biek in lankidetzan HITZEN NAHASTE-BORRASTEA lehiaketa antolatu du. Sari bat epaimahaiak emandakoa eta bestea webean boto gehien jaso dituenarentzat izaten da. Lehiaketa irekia izaten da eta edonork har dezake parte.

**HITZEN NAHASTE-BORRASTEA**  
**LEHIAKETA**  
Ea zenbat asmatzen dituzuent!  
**PARTE HARTZEKO**

Sartu [www.eibarko-euskara.eus](http://www.eibarko-euskara.eus)  
webgunean eta deskargatu taula  
denatu hitzak mezu zuzena asmatzeko, eta bidali  
[euskara@eibar.eus](mailto:euskara@eibar.eus) helbidera

Azken eguna  
apirilaren 2a

**2 SARI**

Mezu originalenari eta mezu gehien zuzendu dituenari  
Coliseorako eta Armagintzaren museorako sarrerak.

**EPEA:** 2023ko otsaila-apirila

**GASTUA:** Coliseorako eta Armagintza museorako 4 sarrera.

**BALORAZIOA:** Lehiaketan 41 lagunek parte hartu dute.

## BERBETAN, MINTZA-PRAKTIKA EGITASMOA

**DESKRIBAPENA:** Eta kitto! euskara elkarteak bideratzen du egitasmoa udalaren laguntzarekin eta lankidetzan. Berbetan egitasmoaren helburu nagusia euskararen erabilera sustatzea izanik, komunitatea eratzea da egitekoa, horretarako harreman-sareak eratu, erabilera funtzio eta esparruak zabaldu eta ahoz zein idatziz erabilera aukerak handituz. Ahalegin berezia egiten da euskaldun berriak euskal komunitatean integratzeko.

Sentsibilizazioa eta motibazioa ere lantzen dira euskararen erabilerarekiko jarrera proaktiboak lortzeko. Horrela, ume eta gazteen artean euskararen erabilera sustatze aldera, eredu izan daitezkeen euskaldun helduengan eragitea bilatzen da.

Egitasmoaren barruan bi atal daude: Gurasoak Berbetan eta Berbetan orokorra



**EPEA:** 2023

**GASTUA:** 3.993 €

### **BALORAZIOA:**

Gaur egun, 29 talde daude, eta bertan 180 parte- hartzaile, eta 56 familia izena emanda

Talde bakoitzak dinamika propioa izaten badu ere, talde desberdinetako kideen arteko harramanak sustatzeko ahalegina egiten da eta jarduera osagarriak ere eskaintzen dira; auzoetan "Barixakuak Jolasian" ekimena eskaintzen zaie Gurasoak Berbetaneko kideei.

3 auzotan, txandaka, garatzen dira ostiraletan.

### **BERBETAN OROKORRA**

18 talde eta 121 parte-hartzaile ditugu momentu honetan talde hauetan eta asko parekatu da generoari dagokionean parte-hartzaileen izaera. Adinari dagokionean ere aipatu behar dugu gero eta jende gazteagoa ari dela parte hartzen.

## ONGI ETORRI BERBETANER 1/2

**DESKRIBAPENA:** Eta kitto! euskara elkarteak bideratzen du egitasmoa udalaren laguntzarekin eta lankidetzan. helburua da Eibarrera etorri berri direnen edo denboratxo bat gure artean daramatenen eta bertakoen arteko elkarbizitza eta elkar ezagutza sustatzea, hau da, jatorri ezberdinetako bizilagunak elkartzea eta elkar ezagutzea beti ere euskara eta euskal kulturaren ikuspegitik.

**ONGI ETORRI**  
**B**erbetan

**DOAN!**  
**¡GRATIS!**

**ZERTARAKO? ¿Para qué?**

- Euskarara eta euskal kulturara gerturatzeko eta jatorri ezberdinetako bizilagunak elkar ezagutzeko.

Para acercarse al euskara y a la cultura vasca y conocer a gente de diferentes culturas.

**NOLA? ¿Cómo?**

- Kultur eta jatorri ezberdinetako pertsonak taldeetan elkartuko gara, herriko auzoetan. Ordu eta erdiko saioetan, astean behin.

Nos reuniremos en grupos, personas de distintos lugares en diferentes barrios de Eibar.  
Un día a la semana, durante hora y media.

**...eta gainera**  
**...y además**

- Irteerak
- Tailerrak

**EPEA:** 2023

**GASTUA:** 29.050 €

**BALORAZIOA:** Adinari dagokionez gazteenak 26 urte ditu eta nagusienak 50 urte.  
**INFORMAZIO GUZTIA BATERA**

## ONGI ETORRI BERBETANERA 2/2

## INFORMAZIO GUZTIA BATERA

EGUNA	AUZOA	ORDUA	PARTAIDE KOPURUA	EMAKUME	GIZON
Asteartea	Ipurua (EPAn)	15:00-16:00	5	5	0
Asteazkena	AMAÑA (eskolan)	14:30-16:00	10	10	0
Osteguna	URKIZU (eta kitfon)	10:30-12:00	5	3	2
	URKI (eskolan)	14:30-16:00	16	15	1

## NOLA GAUZATZEN DA PROGRAMA

Saio praktikoak dira, giro informalean egiten direna.

Taldeak txikiak izaten dira, jatorri eta kultura ezberdinetako lagunez osatuak. Saioak teknikari batek dinamizatzen ditu eta oso giro lasai eta informalean hainbat gai jorratzen ditugu, oso modu praktikoan. Horrez gain, herriko ekintzetan ere parte hartzen dute, sasoiari sasoikoa aintzat hartuta herrian antolatzen diren ekitaldietan parte hartzeri animatzen ditugu, bertoko kulturara, ohituretara gerturatzeko modu hobearik ez dugu ikusten. Guraso berbalagunekin batera ere hainbat ekintzatan hartu izan dute parte, eta, askotan, seme-alabek egiten diete itzulpena gurasoei euskaratik euren hizkuntzara. Esperientziak esaten digu programa eraginkorra dela, herritarren arteko harremanak sendotu eta sarea osatzen laguntzen baitu, eta euskal kultura eta euskara denona eta denontzat dela erakusten du.

## EKINTZA OSAGARRIAK...

- URRIA: (6) Berbetan Jaialdia.  
(14/21/28) Barixakuak jolasian
- AZAROA: (4/11/18) Barixakuak jolasian  
(26) Sosola Irteera Ongi etorri + Gurasoak Berbetan
- ABENDUA: (6) Tor Magoa ikuskizunera gonbidapena
- URTARRILA: (28) Lasturrera irteera Ongi etorr + Gurasoak Berbetan
- OTSAILA (3/10/24) Aratosteak: ekintzen berri eman eta parte hartu.
- MARTXOA: Emakumeen nazioarteko eguna landu + egitaraua.
- APIRILA – Aste santua.  
Maiatza, udaberriari sarrera.
- MAIATZA  
(19) Tantanez tantan. Ekintzen berri eman eta parte hartu.  
(19/20/21) Euskal Jaia. ekintzen berri eman eta parte hartu.
- EKAINA  
(17) Arratera irteera.  
San Juanak: ekintzen berri eman eta parte hartu.
- UZTAILA  
(4) Belaze baserria, bisita.



## EUSKARA SAIOAK HHI-EPA

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak udal euskaltegiarekin eta AEKrekin lankidetzan EPAko ikasleek euskara ikas dezaten saioak eskaintzen ditu. Ikastaroak 60 edo 100 ordukoak izaten dira. Negu ikastaroa eta udako ikastaro intentsiboa ere eskaintzen da. Udako ikastaroan zehar umeen zaintza ere eskaini da.



**EPEA:** 2023

**GASTUA:** 2.000 €

**BALORAZIOA:** Neguan 3 ikastalde egon dira eta udan ikastalde 1.ikasleen eta irakasleen balorazioa ona izan da. Umeen zaintza ere oso baliagarria da ume horiek udan zehar ere euskara entzun eta erabiltzeko aukera ematen zaielako.

## MERKATARITZA LAN-MAHAIA

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udaleko Euskara zerbitzuak, Garapen ekonomikoa, Eta kitto! Euskara elkarteak, EMGI eta ostalarien elkartearekin batera lankidetzan egitasmoak eta kanpainak aurrera ateratzeko lan-mahaia da.



**EPEA:** 2023

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Orohar mahaia osatzen duten alderdi guztiek oso positiboki baloratu dute lankidetzak.

Guztira urtean 8 bilera egin dira:

2023/01/16	2023/03/20	2023/05/08	2023/06/05	2023/07/10
2023/09/10	2023/10/17	2023/11/13		

## e// EUSKARAZ BARRA-BARRA EGITASMOA

**DESKRIBAPENA:** Eusko Jaurlaritzak sustatutako egitasmoa izan da. Eibarko Udaleko Euskara zerbitzuak, Garapen ekonomikoa, Eta kitto, EMGI eta ostalarien elkartearekin batera jarri da martxan. Euskal Herri mailako egitasmoa den honek helburuen artean herritar euskal hiztunen estres linguistikoa gutxitu eta merkataritza arloan euskararen erabilera handitzea ditu.



**EPEA:** 2023ko abenduan jarri da martxan

**GASTUA:** Euskara Zerbitzuak 769 € jarri ditu, dendetan jarri beharreko bereizgarri eta gainerako materiala eskuratzeko

**BALORAZIOA:** Egitasmoaren zabalkundearekin abenduan hasi da eta 63 establezimenduk eman dute izena. Zabalkundea bukatu gabe dago oraindik, eta establezimenduek beti izango dute izena eman eta baldintzak betetzen badituzte bereizgarria jasotzeko aukera.



## EUSKARAZ PRIMERAN!

**DESKRIBAPENA:** Eta Kitto! Euskara elkarteak bideratzen duen egitasmoa da. Helburua eta Eibarko dendari eta ostalariak zerbitzua euskaraz ematearen garrantzia jabetzea eta hori egin ahal izateko erraztasunak eta baliabideak ematea.



### ESKAERA EGITEKO EPEA: 2023

**GASTUA:** Eta kittorekin hitzarmen izenduna 25.000€.

**BALORAZIOA:** Eta kitto, Eibarko udala, Dendarien elkarte, merkataritza federazioa eta EMGIrekin batera egiten den lan-mahaian partekatzen dira egitasmoko ekintzak. Ohiko ekintzak egin dira, baina pisu berezia hartu du "Euskaraz primeran" agiri berriak eta e// agiria banatzeko dendaz denda egin den datu bilketak.

## JUAN SAN MARTIN BEKA 2023

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak UEUrekin lankidetzan ikerketa beka kaleratzen du 2 urtean behin. Beka 9.000€koa da eta lehiaketa bidez esleitzen da. 2023ko gaia NATURA ETA MENDIZALETASUNA izan da.

**2023**

**XVI JUAN SAN MARTIN BEKA**

Ikerketa esparrua:  
**MENDIZALETASUNA ETA NATURA**

Eskaerak aurkezteko azken eguna:  
urriaren 12a  
Zenbatekoa : 9.000€  
[www.eibar.eus](http://www.eibar.eus)



<https://www.eibar.eus/eu/tramiteak/bekak-dinlaguntzak-laguntzak/juan-san-martin-beka-2023>



**EPEA:** 2023

**GASTUA:** 9.000 €

**BALORAZIOA:** XVI. Juan San Martin beka hutsik geratu da.

## EIBAR, EUSKARAZ HEZIKO DUEN HIRIA

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak UEUrekin lankidetzan Eibar euskaraz heziko duen hiria izan dadien lan egingo du. Horretarako agente hezitzaile guztien sarea osatu nahi da.



**ESKAERA EGITEKO EPEA:** 2023

**GASTUA:** 15.000 €

**BALORAZIOA:** Agente hezitzaileekin harremana egin da. Hiri hezitzailea izateak ze konpromiso eskatzen dituen lantzeko mintegia egin zen azaroaren 21ean markeskoan.

## UEU DIRULAGUNTZA DEIALDIA

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak UEUn ikastaroak egiten dituzten eibartarrei eta baldintzak betetzen dituztenei matrikularen %50ari dagokion dirulaguntza ematen diete.

Ikastaro hori indarrean dagoen ikasturtean egindakoa izan behar da.

**Dirulaguntza jaso ahal izateko ikastaroa 2022/09/01 eta 2023/07/31 bitartean egindakoa izan behar da.**



**ESKAERA EGITEKO EPEA:** 2023/09/30

**GASTUA:** 0 €

**BALORAZIOA:** Ez da eskaerarik egon.

## EUSKARA DIRULAGUNTZA IZENDUNAK (1)

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak Eibarren euskararen berreskurapenerako lanean diharduten elkarteekin dirulaguntza izendunak ditu. Dirulaguntza bi zatitan ordaintzen da, %60 hitzarmena sinatzen denean eta %40 zuriaketa aurkeztu eta ontzat eman ondoren.

### Eibarko AEK 30.000 €

Eibarren euskararen irakaskuntzan aritzeko AEK-k garatuko dituen jarduerak finantzatzea. Helduen euskalduntze-alfabetatze ikastaroen matrikula prezioak merkatzea.



### Eta Kitto Astekaria 100.041 €

Eta kitto astekaria argitaratzea. Eta kitto astekaria argitaratzen laguntzea. Euskararen sustapena. Euskaraz irakurtzea sustatzea Eibarko euskaldunak euskaraz irakurtzen ohitzea eta euskara gutxi edo ia ezer ez dakitenak ere euskarara gerturatzea.

### Eta Kitto Berbetan 50.908 €

Berbetan egitasmoa burutzea Euskaldun berrien eta euskaldun zaharren artean harremanak sustatzea eta euskaldun berriei euskaraz praktikatzeko aukera ematea. Euskaldun berriek euskaltegian ikasitako euskara kalean, familian, merkataritzan eta ostalaritzan erabiltzea.



### Eta kitto Txikitto 13.500 €

Txikitto aldizkaria argitaratzen laguntzea. Euskararen sustapena umeen artean. Euskarazko irakurketa sustatzea. Lehen Hezkuntzako umeen artean euskaraz irakurtzeko zaletasuna handitzea eta gurasoek eta umeek euskarazko irakurketa konpartitzea.



## EUSKARA DIRULAGUNTZA IZENDUNAK (2)

### Eta Kitto Tailerrak eta hitzaldiak 5.000 €

Tailerrak eta hitzaldiak antolatzea. Eta Kitto euskara elkarteak antolatuko dituen tailer eta hitzaldiak finantzatzen laguntzea. Euskararen sustapena. Euskararen erabilera sustatzea. Euskarazko tailer eta hitzaldi eskaintza handitzea.



### Etta Kitto Ongi etorri Berbetanera 17.430 €

Kanpoko jatorria duten eibartarrak euskarara eta euskal kulturara gerturatzea elkarbizitza hobetzeko.

### Badihardugu 1.386€

Ahozko ondarea jasotzea, ikertzea eta hedatzea. Ahozko ondarea jasotzea. Euskalkiak eta antzinako kontuak jasota, euskalkiak eta historia aztertu eta hedatzea.



### Hankamotxak Bertso Eskola



### Hankamotxak Bertso Eskola 3.235€

Bertsozaletasuna sustatzea. Eibarko bertso eskolaren jarduera egitaraua burutzen laguntzea. Eibarko ume eta gaztetxoaren artean bertsozaletasuna handitzea.

### UEU 15.000€

Eibar, euskaraz heziko duen hiria egitasmoa



EPEA: 2022

GASTUA: 216.400 €

**BALORAZIOA:** Elkaratek egindako gastuen zuriketa aurkeztu dute eta ontzat eman da.



## DIRULAGUNTZA ERROTULUAK EUSKARAZ

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak dirulaguntza deialdia kaleratu du Eibarren dauden edo irekiko diren merkataritza establezimenduetako errotuluak eta irudi korporatiboko elementuak euskaraz jartzen laguntzeko.

EPEA: 2023

LANKIDEAH:

Eibar Merkataritza Gune Irekia

...eta Kitto! Euskara Elkarte



**ESKAERA EGITEKO EPEA:** 2022/11/13-2023/11/11

**GASTUA:** 1.185€

**BALORAZIOA:** Guztira 3 eskaera egon dira eta denek baldintzak betetzen zituztenez, jaso dute zegokien dirulaguntza. Honela banatu dira dirulaguntzak:

<b>ERROTULU NAGUSIA</b>	<b>296,73 €</b>
<b>FINKOA:</b>	<b>600,00 €</b>
<b>ELEMENTUAK:</b>	<b>289,00</b>
<b>GUZTIRA:</b>	<b>1.185,73 €</b>



# Eibarren **AKEBAI**



## EKIPOA

**DESKRIBAPENA:** Euskararen Plan Estrategikoa abian jartzeko sortu zen Eibarren AKEBAI plataformak duen talde eragilea da. Nahiz eta kide batzuk bi urtez behin edo/eta urtetik urtera aldatu (euskaltegietakoak eta Euskara Batzordeko zinegotziak) Ekipoaren osaera finkatuta dago. Oro har, urteko kudeaketa planaz eta aurrekontuaz arduratzen da. Dagozkion egitekoak araudian daude zehaztuta. Cutxienez, hilean behin batzartuko da.



**EPEA:** 2023

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Ekipoa urteko aurrekontua eta plana egiteaz arduratu da, eta adostutako ekintza eta egitasmoak bideratu eta horien jarraipena eta zabalkundea egin du urtean zehar. Ekipoako kideak ekintza-taldetan banatuta aritu dira, egitasmoak aurrera eramaten.

Partaideak izan dira:

Udaleko euskara teknikaria, ...eta kitto! Euskara Elkarteko normalizatzailea, Eibarko Udal Euskaltegiko ordezkaria; Udaleko Euskara Batzordeko zinegotzia (txandaka), Akekide boluntario bat, eta koordinatzailea. 6 kide izan ditu Ekipoak 2023an.

10 bilera egin ditu urtean zehar Ekipoak, denak presentzialak. Bileretan elkartzeaz gain, Ekipoako kideek emailaz, Whatsappez eta Driven bitartez egin dute harremana eta lana. Ekintza-talde bakoitzak bere martxa eta funtzionatzeko era izan du, zegokion ekintza bideratu eta burutzeko.

**DESKRIBAPENA:** LH 2. mailan lantzen den egitasmoa. Euskarri ezberdinak erabiliz (komikia, mahai-jokoa, bideoak, abestia-koreografia,...) euskararen inguruko hainbat portaera jartzen dira agerian, eta umeei egindako lanketa horren bitartez inpaktua sortzen da gurasoengan. Horrez gain, umeei mezu bat jaso dute: euskarak osoago eta zoriontsuago egingo dituela. AKEk eta KLIKek, etorkizunetik datozen pertsonaiek, misio bat jarriko diete; umeei, super heroi bihurtuta (Super Akeak), Eibar hobea egiten lagunduko diete: garbiagoa, euskaldunagoa,... Bide horretan hainbat erronka gaitzitu behar izan dituzte, balio ezberdinak landuz (euskararen erabilera, genero berdintasuna, aniztasuna, ekologia...).



**EPEA:** 2023-2024 ikasturtea

**BALORAZIOA:** 2023-2024 ikasturtean egitasmoa berriz martxan jarri da. Urrian hasi ziren LH2ko haurrak lehen erronkarekin, eta gabonetako oporretarako hirugarren erronka eraman zuten. AKE eta KLIK, bi izan dira ikasturte hontako superheroiak, eta Eibar hobea egiteko "SuperAkeak" lortuz joan dira. Egitasmoa 2024ko apirilera arte luzatuko da.

## IRAKASLEENTZAKO MOTIBAZIO SAIOAK

**DESKRIBAPENA:** Eibarren AKEBAIK ikasturte hasieran sentsibilizazio saioak eskaini dizkie Eibarko Lanbide Heziketako irakasleei. Hizkuntzaren erronkan lagungarri izango zaizkien baliabideak eskaintzea da saio hauen helburua.



**EPEA:** 2023ko iraila

**BALORAZIOA:** Ikasturteari indartsu eta motibatuta ekiteko, irakasleentzako mintegia antolatu du Eibarren AKEBAIK: "Erabileraren ontzia bete", EBETEk eskainia.

**EBETE**ko irakasleek euskararen erabileran eragiteko estrategiak azaldu dizkiete Eibarko Lanbide Heziketako Armeria eta Uni Eibar-Ermua zentroetako irakasleei. Lanbide Heziketako 140 irakasle inguruk hartu zuten parte, lau taldetan banatuta.

## KIROL KLUBENTZAKO MOTIBAZIO SAIOAK

**DESKRIBAPENA:** Haur eta gazteen kirol jarduerak euskalduntzeko helburuarekin, UNI Eibar-Ermuan kirol ikasketak egiten dabiltzan azken mailako ikasleentzako eta Eibarko Kirol Klubetako entrenatzaileentzako sentsibilizazio-saioak eskaini dira.



**EPEA:** 2023ko urria

**BALORAZIOA:** Urriaren 20an eta 27an kirolean euskara sustatzeko sentsibilizazio saioak egin ziren UNI Eibar-Ermuan. Bertan kirol ikasketak egiten dabiltzan D eta A ereduko ikasleek parte hartu zuten, eta baita Igerixan, Eibar Rugby eta Ipurua Gimnasia Erritmikoko entrenatzaileek ere.

Giro polita sortu zen kideen artean, eta kezka kezka eta eragozpenak eragozpen, euskararen aldeko apustuan jarraituko dutela adierazi zuten.

## APPA HI! APLIKAZIOA

**DESKRIBAPENA:** Appa hi! aplikazioa eskuko telefonoaren bidez hitanoa praktikatzeko aplikazioa da, eta bost astean hika egiten ikasteko aukera ematen du.



**EPEA:** 2023ko azaroa

**BALORAZIOA:** Azaroaren 16an Eibarko hitanoa ikasteko atala gehitu zitzaion "Appa Hi" aplikazioari. Badihardugu Euskara Elkartek garatu du, CodeSyntax enpresarekin elkarlanean. Eibarko hitanoa praktikatzeko aukera gehitu zaio eta herrian zabalkundea egin da herritarrak era ludiko batean Eibarko hitanoa ikastera anima daitezen. Aplikazioaren helburua honakoa da: erabiltzailea 35 eguneko epean, hau da, bost astean, hika egiten hasteko prest egotea.

## HEZITZAILEENTZAKO SENTSIBILIZAZIO SAIOA

**DESKRIBAPENA:** Udaran haur eta gazteen aisialdian hezitzaile ibili direnentzako sentsibilizazio saioa eskaini zitzaien, "Udako jardueretan euskararen erabilera sustatzen" izeneko formakuntzan



**EPEA:** 2023ko ekaina

**BALORAZIOA:** Astixako begiraleek eta Eibar Rugby taldeko udalekuetan parte hartu duten hezitzaileek sentsibilizazio saioa jaso zuten EBETEreren eskutik. Helburua haurren aisialdian euskara erabiltzeak duen garrantziaz jabetzea zen, eta horretarako, praktikara eramateko hainbat estrategia lantzea.

## EUSKARAZKO EDUKIAK PANTAILETAN

**DESKRIBAPENA:** Gazteen aisialdian geroz eta pisu handiagoa dute teknologia berriek, eta euskarak presentzia txikia du gazteek kontsumitzen dituzten edukietan. Horregatik, pantailak gazteen aisialdiaren parte direlako, euskaraz dagoen eskaintza eta baliabideak ezagutaraztea eta sustatzea bilatu da.



**EPEA:** 2023

**BALORAZIOA:** Euskarazko edukien katalogo txiki bat landu eta horren zabalkundea egin da: webgunean, sare sozialetan, kaleetan... Ikastetxeen bidez ere egin da zabalkundea gaztetxoengana heltzeko. Horretaz gain, Udal Euskaltegian hitzaldiak egin dira pantailetan euskaraz aurki ditzakegun edukien berri emateko eta euskarak teknologia berrietan duen egoeraren berri emateko.

## HAMAIKA BERBALDI

**DESKRIBAPENA:** "Hamaika berbaldi" egitasmoaren helburuak honako hauek dira: herritarrak aktibatzea, hizkuntza eskubideak ezagutaraztea, euskaldunok ahalduntzea, euskararen aldeko diskurtsoa berritzea, euskal kultura eta euskalduntasuna sustatzea... eta herriko eragileekin harremanetan jarri eta lankidetzan aritzea.



**EPEA:** 2023ko maiatzaren 17a eta urriaren 24a

**BALORAZIOA:** Hamaika berbaldi egitasmoaren barruan, Agurne Gaubekaren "Hizkuntza-eskubideak, denon auzia" eta Kike Amunarrizen "Haurren aurrean helduok heldu" hitzaldiak egin ziren. Lehen hitzaldian hizkuntza-eskubideak ezagutaraztea eta Euskal Herrian dagoen egoeraz hausnartzea izan ziren helburuak. Kike Amunarrizen hitzaldia 0 eta 12 urte bitarteko hurrekin harreman zuzena duten zaintzaileei zegoen zuzendua, eta sozializazioan eta transmisioan dauden hizkuntza-portaerei buruz hausnartu zen.



# ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ EGITEKO KANPAINA

**DESCRIPCIÓN:** Eibarren AKEBAIk errenta aitortpena euskaraz egiteko publizitate kanpaina egin du. Helburua da aitortpena euskaraz egiten duten eibartarren kopurua igotzea. Kanpaina eta kitto! astekarian, webgunean, sare sozialetan eta herriko hedabideetan egin da.

**EPEA:** 2023ko martxoa-ekaina

**BALORAZIOA:** Kanpainan erabili den leloa honako hau izan da: "Errenta aitortpena? Aurten ere, duda barik, EUSKARAZ!"  
Aurreikusita zegoen bezala,...eta kitto! aldizkarian iragarkiak jarri ziren.

Horrez gain, gaiari buruzko erreportajea egin da astekarian eta herritarren iritziak/testigantzak ere jaso dira.

Udalaren webgunean eta sare sozialetan ere eman da kanpainaren berri.

Lehiaketa bat ere egin da ogasunarekin euskaraz aritzeko hiztegia zabaltzeko.

Aurreko ekitaldian 1.603 eibartarrek egin zuten aitortpena euskaraz, 14.243tik (%11). Helburua da aurten gutxienez 1.700 izatea.



## HIZKUNTZA ESKUBIDEEN ATARIA

**DESKRIBAPENA:** AKEBAIren asmoa da herritarrei hizkuntza eskubideen berri ematea modu argian: ordenantza, dekretu berria, erabiltzaile-kontsumitzaileen dekretua... Horrekin batera, zalantzak argitzeko, hizkuntza eskubideen urraketen berri emateko eta horiek bideratzeko kanala du: Astindu.

**HERRITARRON HIZKUNTZA ESKUBIDEAK**

**astindu eibar**

**Zer da Astindu?**

AKEBAIren egitasmoa da. Eibartarrek eta Eibarko zerbitzuetako erabiltzaileek hizkuntza eskubideen inguruan izan ditzaketen zalantzak, kezkak, galderak... jasotzeko eta argitzeko kanala.

**BERTOKOA, GERTUKOIA, HERRIKOIA**

Elkarlanean, elkari lagundut, modu bakor eta erakitzalean lortuko dugu Eibarren euskararen presentzia handitzea.

Eibartar guztiak parte-hartzearekin lortuko dugu Eibar euskaltunagoa egitea.

**ASTINDU BELDURRAK! ZALANTZAK! OHITURAK!**

943 708420  
Ez eibarren@eibar@gmail.com  
Bete webguneko formularioa

Astindu es un proyecto de "Eibarren Akeba". Un canal donde se responderán las dudas, inquietudes y preguntas sobre los derechos lingüísticos que pueden tener las personas vecinas en Eibar.

**LEHIAKETA!**

**astindu**

**• ASTEKO SARIA:** COLISEORAKO EDO MUSEORAKO 2 SARRERA.

**• HILABETEKO SARIA\*** 100€-KO EROSKETA-BONOA EIBARKO DENDETAN ERABILTZEKO.

\*Azaroak 3, 10, 17 eta 24ko lehiaketaren parte hartu dutenen artean.

**SARTU ONDORENGO ESTEKAN ETA ERANTZUN 3 GALDERAK!**

<https://labur.eus/astindu1>

**astindu eibar**  
hizkuntza eskubideen ataria

**EPEA:** 2023

**BALORAZIOA:** Eibartarrek eta Eibarko zerbitzuetako erabiltzaileek hizkuntza-eskubideen inguruan izan ditzaketen zalantzak, kezkak, galderak... jasotzeko eta argitzeko kanala dugu; bertokoa, gertukoa, herrikoa: "ASTINDU Eibar" hizkuntza eskubideen ataria.

## HAURREN AURREAN, HELDUOK HELDU

**DESKRIBAPENA:** 2023ko udazkenerako Topaguneak proposatutako aktibazio ekintza da. Guraso, begirale, hezitzaile, lagun, zaintzaile eta 0-12 urte bitarteko umeekin egoten diren bestelako senideek euren arteko (hau da, helduen arteko) hizkuntza-praktikak alda ditzaten eta euskara gehiago erabil dezaten egingo den aktibazio ekimena izango da. Euskal Herri osoan egin da, umeak eta helduak elkartzen diren inguru informaletan. Herri bakoitzak identifikatuko ditu guneak, egokitutako euskarriak jarriz.

**EIBAR**  
Urriak 24

**KIKE AMONARRIZEN HITZALDIA ETA HAURRENTZAKO TAILERRA**  
18:45ean Erretal Plazaan izen txartelarekin hasia eta osatuta!

**HITZALDIA: KIKE AMONARRIZ**  
Nola auzoan gurasoekin elkarrekin hitzatu? Nola erantzun eta indarrik gertatu? Nola erantzun herri? Gurasoek zer eragin behar du? Nola lortu euskaraz egin dezaten? Nola aldatu hizkuntza-ekimena?

**HAURRENTZAKO TAILERRA**  
Hizkuntza-erabilpenaren bidezko hizkuntza-erabilpena salatu eta eratu.

**EPEA:** 2023eko urriaren 19tik 29ra

**BALORAZIOA:** 17 lona jarri ziren herriko hainbat gune informaletan (parke, jolasgune, ikastetxe inguru, kirol instalazio...) egitasmoari ikusgarritasuna emateko, eta norbanakoak identifikatzeko pegatinak banatu ziren.

Egitasmoaren inguruko informazioa eman zitzaien ikastetxeei, aisialdiko taldeei, kirol taldeei, gurasoei (ikastetxeen bitartez eta guraso elkarleen bitartez) ... Webgunean eta sareetan ere egin genuen zabalkundea.

Azkenik, gurasoei eta zaintzaileei zuendutako Kike Amonarriz hitzaldia eta haurrentzako tailerrak ere antolatu ziren.

## TRANSMISIO MINTEGIA

**DESKRIBAPENA:** ...Eta Kitto! Euskara elkarteak antolatzen du Akebairen babesarekin. Goiz osoko mintegia euskararen transmisioari buruzko hizlariekin eta mahai inguruarekin Euskal Herri osoko euskara teknikari, irakasle, aisialdiko begiraleei zuzendua. Aurtengoa aurrez aurre izan da Armeria Eskolako Aretoan eta streaming bidez ere eman da.



### Euskararen sozializazioa eta transmisioa XIII. MINTEGIA

**Martxoaren 15ean** Aurrez aurre zein streaming bidez jarraitzeko aukera  
Armeria Eskolako areto nagusian

**08:45:** Akreditazioa eta material-banaketa.  
**09:00:** Ongietorria.  
**09:15:** "UEU, katebegien erakuntza".  
Ane Sarasua, UEUko Idazkari Nagusia.  
**09:55:** "Euskalgintza: atzeak (ere) erakutsiko ote digu aurrea nola dantzatu".  
Idurre Eikisabel, Kontselluko Idazkari Nagusia.  
**10:35:** "Euskararen biziberritzea, munduko beste hizkuntzen begietatik".  
Eñaut Agirre, Garabideko koordinatzailea.  
**11:15:** ATSEDENA ETA KAFEA.  
**11:50:** "Bestelako sare sozialak posible dira: Mastodon"  
Lorea Arakistain PUNTUEUSeko marketin zuzendaria eta Asier Iturralde, Iametzta eta ARGIAko garatzailea  
**12:30:** "Bes-gela digitala, irulegiko eskuak joko eman digu".  
Markel Sanchez eta Ainhoa Zabarte, Berbaro Elkarteak kideak.  
**12:55:** "Euskararen Baloaren aurkikuntza SO Eibarren"  
Mikel Larrañaga SO Eibar Fundazioko lehendakari ordea.  
**13:25:** Agurra.

www.etakitto.eus  
normalizazioa@etakitto.eus  
943 20 09 18

antolatzailea laguntzaileak

**EPEA:** 2023ko martxoaren 15a

**BALORAZIOA:** Euskararen sozializazio eta transmisioari buruzko mintegiaren 13. edizioa izan zen 2023koa.

Pandemiaz geroztik streaming bidez zein aurrez- aurre jarraitzeko aukera eskaini zen, eta guztira 91 izen- emate egon ziren. Horietatik 39 aurrez- aurre jarraitzeko eta 52 streaming bidez jarraitzeko.

Hala ere, zuzeneko emisioa jarraitzen momentu batzuetan 86 lagun egon ziren. (beraz izena emanda ez zegoen jendea ere egon zen mintegia ikusten)

Parte hartzaileen perfila euskara elkarte eta udaletako euskara teknikariak, irakasleak, euskarlariak eta barnetegietako irakasleak osatzen dute, nahiz eta urtero egoten diren bazkide edo herritar batzuk ere mintegian izena ematen dutenak.

## EUSKARAREN HAMABOSTALDIA

**DESKRIBAPENA:** AKEBAIk euskalgintzarekin eta udalarekin batera antolatu du Euskararen Hamabostaldia.



**EPEA:** 2023ko azaroaren 15etik abenduaren 3ra

**BALORAZIOA:** 2023an euskararen eguna izan beharrean hamabostaldia antolatzeko asmoa zegoen eta azkenean ia hilabetea izan da. Partaidetza aldetik ere elkarrekin aritu dira udala, AKEBAI, euskalgintza taldea eta... eta kitto euskara elkarteak. Ekintzen artean Gaitu ahots-grabaketa maratoia eta "365 egun euskaraz" panelen margoketa egon dira.



## EUSKAL ESKAINTZAREN ZABALKUNDEA

- **DESKRIBAPENA:** Hilero euskararen agenda prestatzen du AKEBAIk. Agenda horretan Eibarren euskaraz edota euskararen inguruan antolatzen diren ekitaldien berri ematen da, eta horien zabalkundeak egiten dira Eibarren AKEBAIren webgunean eta sare sozialetan (Telegram, Facebook, Twitter, Instagram). Euskararen agendaren zabalkunderako ez ezik, AKEBAIren beste egitasmo batzuen berri emateko ere baliatzen dira webgunea eta sare sozialak



**EPEA:** 2023

**BALORAZIOA:** Zabalkunderako honako kanal hauek erabili dira: e-maila (agendaren banaketa-zerrenda, Akekideak), webguneak (akebai.eus, eibar.eus) eta sare sozialak (Facebook, Telegram, Twitter, Instagram).

Eibarren euskaraz Telegram kanalak 17 kudeatzaile ditu, Eibarko kultura eragileak, eta 134 harpidedun.

akebai.eus webguneren eguneratzearekin hasi gara 2023an.

Eibarren Akebai Facebook-ek 675 jarraitzaile ditu eta 627 lagunek atsegin dute.

Eibarren Akebai Twitterrek 252 jarraitzaile ditu eta

akebaieibarren Instagramek 532 jarraitzaile

## TANTANEZ TANTAN

**DESKRIBAPENA:** TANTANEZ TANTAN bi urtetik behin Eibarko Euskalgintzak antolatzen duen giza katea da. Urez betetako gantxila eskuz esku eramaten da Untzagaraino, euskararen olatua irudikatuz.



**EPEA:** 2023ko maiatzaren 19a

**BALORAZIOA:** Eguraldia lagun jende asko elkartu zen ibilbide osoan. Herriko elkarte eta erakunde gehienek hartu zuten parte ibilbidearen zatiren batean. Lotura honetan ikus daiteke egunak emandakoa:  
<https://etakitto.eus/berriak/euskara/130229.html>





# UDAL EUSKALTEGIA



## EUSKALTEGIKO PLANTILA

**DESKRIBAPENA:** Euskaltegioko plantila 10 lagunez osatuta dago: 9 irakasle-normalizatzaile eta administrari bat. 2022/2023 ikasturtean, 3 irakasle-normalizatzaile jardun osoan aritu dira klaseak ematen; idazkari akademikoak eta zuzendariak, berriz, lan jardunaren erdia karguei dagozkien lanekin bete dute, eta gainontzekoa irakasle lanetan eman dute. Beste bi irakasle kontratatu behar izan ditugu sortutako taldeei aurre egiteko: bata irakasle jardun osoan aritu zen urritik ekainera arte; bestea %40ko lanaldiarekin EPAko taldeetan klaseak emateko, azarotik martxora bitartean. Irakasle bat normalizatzaile lanetan aritu da Euskara zerbitzuan, beste batek Euskararen Plan Estrategikoaren dinamizatzaile lanetan jardun du, hirugarren bat Pertsonal sailean zerbitzu eginkizunetan, eta laugarrena itzultzaile lanak egiten udalean.

Zuzendaria	Euskaltegian
Idazkari Akademikoa	Euskaltegian
3 Irakasle-normalizatzaile	Euskaltegian
4 Irakasle-normalizatzaile	Euskara Zerbitzuan
2 irakasle aldi baterako kontratatuta	Euskaltegian
Administraria	Euskaltegian



**EPEA:** 2022 - 2023 ikasturtea

**GASTUA:** 599.932,41 €

**BALORAZIOA:** Esan bezala, bi irakasle kontratatu behar izan dira eskaerari aurre egin ahal izateko, gainontzekoen jarduna beteta baitzegoen.



## EUSKALTEGIAREN ESKAINTZA

**IDESKRIBAPENA:** Eibarko Udal Euskaltegiak eskaintzen duen zerbitzua 16 urtetik gorakoei zuzenduta dago. Europar Hizkuntzen Erreferentzia Markoak ezarritako maila guztiak eskaintzen ditu, hau da, A1etik hasita C2ra arte, goizez eta arratsalde/iluntzeko ordutegietan.

Neguko ikastaroan, Klaseak aurrez aurre eta autoikaskuntza bidezkoak izan daitezke. Aurrez aurrekoen artean hainbat modulu eskaintzen ditugu: astean 10 ordukoa asteleheneetik ostegunera; astean bitan 2,5 orduko saioetan (C1 mailan); astean 8 ordu (C2 mailan); ikastaro trinkoak eta 100 edo 60 orduko ikastaroak (xede berezikoak badira).

Aurten C1 eta C2ko azterketak prestatzeko ikastaro motzak eskaini dira: C1eko idatzia prestatzeko 8 ordukoa ekainean, C1eko ahoskoa prestatzeko 10 ordukoa apirila/maiatzean eta C2koa prestatzeko 9 ordukoa apirila/maiatzean.

Autoikaskuntzarako HABEk prestatutako programa erabiltzen da (BOGA), zeina tutoretza eta mintza-saioen bidez osatzen den.

Uda ikastaroan, 100 orduko aurrez aurreko klaseak izaten dira.

Irailean, azterketak prestatzera begirako 30 orduko ikastaroak eskaintzen ditugu C1 eta C2 mailetan.

Ikastaro berezien artean, hauexek eskaintzen dira: etorkinentzako harrera ikastaroa (AISA), Mintza-praktika ikastaroak, jubilatuei zuzendutakoak, gurasoei begirakoak, ikastaroak, enpresetakoak...

Azterketa prestakuntza eta HABEko azterketa deialdietara aurkezteko aukera ere eskaintzen da.

A1 eta A2 mailak egiaztatu ahal izan dira Euskaltegian ebaluazio jarraituaren bitartez.

Euskaltegiak Liburutegi zerbitzua (mailari egokitutako liburuak maileguan) eta Ordenagailu gela (euskara ikasteko Internetek eskaintzen dituen baliabideak) ere erabiltzeko aukera ematen die ikasleei.



### EPEA: 2022-2023 ikasturtea

**BALORAZIOA:** Maila guztietan izan ditugu taldeak, A1, B1 eta B2 mailetan, gainera, txandaka aritzeko aukera izan dute ikasleek, goizez eta arratsaldez osatu baitira taldeak. Aipatzekoa da C2 mailarako gero eta ikasle gehiagok ematen duela izena. Lehen, taldea osatzeko beharrezkoa zen ikasle kopurua kostata lortzen bagenuen ere, azkenurteotan, hasiera-hasieratik betetzen da ratioa, aurten 12 ikaslerekin jarri da martxan taldea. Urrian matrikulatutakoez gain, urtarrilean beste 7 ikaslek eman dute izena maila horretako taldean. Ikasle gehienek aurrez aurreko eskolak aukeratu badituzte ere, autoikaskuntzan 27 ikasle izan ditugu, iaz baino gutxiago.

Ikastaro eta talde berezien artean, hauexek izan ditugu: Gurasoak ere eskolara kanpainatik sortutakoak (talde bakarra, iaz bezala), 2 talde izan ditugu EPAn, Aldatzeko ikastetxean, bertako irakasleei zuzenduta, euskara maila eguneratzeko 2 talde, eta lehen adierazi bezala, 1. deialdiko azterketa prestatzeko ikastaro motz batzuk izan ditugu eta baita ere, 2. deialdiko azterketa prestatzera bideratutako 30 orduko bi kurtso ere.



## MATRIKULA EPEAK ETA EGUTEGIA

**DESKRIBAPENA:** Ikasturtea bi alditan banatzen da, negu ikastaroa (urria-ekaina) eta uda ikastaroa (ekaina-uztaila). Negu ikastaroaren matrikula-aldi nagusia irailean izaten da, baina urtarrilean berriz zabaltzen da izena emateko epea, hilabetez, eskaerari erantzuteko eta irailean hasitako taldeak osatzeko. Uda ikastaroaren matrikula, ostera, ekainean izaten da. Negu ikastaroa urriaren lehenengo lanegunean hasten da eta San Juan jaien aurreko azken lanegunean amaitzen. Uda ikastaroa San Juan jaiak igaro eta lehenengo lanegunean hasten da eta 20 laneguneko iraupena du.

Iraila 2022				Urria 2022				Azaroa 2022				Abendua 2022																
A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I								
		1	2	3	4						1	2		1	2	3	4	5	6						1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11	3	4	5	6	7	8	9	7	8	9	10	11	12	13	5	6	7	8	9	10	11	
12	13	14	15	16	17	18	10	11	12	13	14	15	16	14	15	16	17	18	19	20	12	13	14	15	16	17	18	
19	20	21	22	23	24	25	17	18	19	20	21	22	23	21	22	23	24	25	26	27	19	20	21	22	23	24	25	
26	27	28	29	30			24	25	26	27	28	29	30	28	29	30					26	27	28	29	30	31		
							31																					
Urtarrila 2023				Otsaila 2023				Martxo 2023				Apirila 2023																
A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I	
						1			1	2	3	4	5			1	2	3	4	5						1	2	
2	3	4	5	6	7	8	6	7	8	9	10	11	12	6	7	8	9	10	11	12	3	4	5	6	7	8	9	
9	10	11	12	13	14	15	13	14	15	16	17	18	19	13	14	15	16	17	18	19	10	11	12	13	14	15	16	
16	17	18	19	20	21	22	20	21	22	23	24	25	26	20	21	22	23	24	25	26	17	18	19	20	21	22	23	
23	24	25	26	27	28	29	27	28						27	28	29	30	31			24	25	26	27	28	29	30	
30	31																											
Maiatza 2023				Ekaina 2023				Uztaila 2023				Abuztua 2023																
A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I	
1	2	3	4	5	6	7			1	2	3	4						1	2	1	2	3	4	5	6			
8	9	10	11	12	13	14	5	6	7	8	9	10	11	3	4	5	6	7	8	9	7	8	9	10	11	12	13	
15	16	17	18	19	20	21	12	13	14	15	16	17	18	10	11	12	13	14	15	16	14	15	16	17	18	19	20	
22	23	24	25	26	27	28	19	20	21	22	23	24	25	17	18	19	20	21	22	23	21	22	23	24	25	26	27	
29	30	31					26	27	28	29	30			24	25	26	27	28	29	30	28	29	30	31				
														31														

⊕  
Negu ikastaroa  
Uda ikastaroa

**EPEA:** 2022-2023 ikasturtea

**BALORAZIOA:** HABEk ezartzen dituen epeak errespetatu dira eta egutegia bete da. Hala ere, epez kanpo etorri den orori dagoen eskaintza azaldu zaio eta matrikulatzeko aukera eman.



## TASAK ETA TARIFA BEREZIAK

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udal Euskaltegiak euskara ikasteko ezarrita dauzkan prezioak ordaintzeko orduan erraztasunak emate aldera, tarifa bereziak jarri ditu zenbait kolektiborentzat. Ezinbestekoa da Eibarren erroldatuta egotea tarifa berezi hauetaz baliatzeko. Ikusi **ORDENANTZA FISKALAK** (Udalaren web orrian ikusgai)



**EPEA:** 2022-2023 ikasturtea

**GASTUA:** 18.662 €

**BALORAZIOA:** Ikasturte honetan 156 ikaslek izan dute tarifa bereziren bat (% 61,4)

- Aurreko ikasturteko asistentziagatik 8 ikasle (% 3,1)
- DBE-RGI izateagatik: 6 (% 2,4)
- Guraso izateagatik: 36 (% 14,2)
- Dendari, ostalari edo zerbitzuen sektorekoa izateagatik: 12 (% 4,7)
- 65 urte edo gehiago izateagatik: 4 (% 1,6)
- Langabetua izateagatik: 21 (% 8,3)
- Ikasle izateagatik: 69 (% 27,2)
- Familia ugaria izateagatik 0 (%0)

## TALDEAK, ORDUAK ETA IKASLE KOPURUA

**DESKRIBAPENA:** 2022/2023 ikasturtean 254 ikasle ibili dira Euskaltegian 19 taldetan banatuta, guztira 29.941 ordu eman dira Neguko eta Uda Ikastaroaren artean.

2022/2023		Talde kopurua	Emandako ordu kopurua	Ikasle kopurua
Negu Ikastaroa	Aurrez aurre	16	27.801	186
	Autoikaskuntzan	1	-	27
Uda Ikastaroa	Aurrez aurre	3	2.140	41

A1	A2	B1	B2	C1	C2
OINARRIZKO ERABILTZAILEA		ERABILTZAILE AURRERATUA		ERABILTZAILE ADITUA	
Hasierako erabiltzailea	Oinarrizko erabiltzailea	Erabiltzaile independentea	Erabiltzaile aurreratua	Erabiltzaile gaitua	Erabiltzaile aditua
- Talde 2 330 ordukoa  - Talde 1 100 ordukoa (gurasoak)  - Talde 2 60 ordukoa (EPAn)	- Talde 1 330 ordukoa	- 2 Talde 330 ordukoa	- 2 talde 330 ordukoak	- talde 1 168 ordukoa  -Talde 1 10 ordukoa  -Talde 1 8 ordukoa  - Talde 1 100 ordukoa (Uda Ikast.)  Taldea 1 30 ordukoa (irailean)	- Talde 1 266 ordukoa  - Talde 1 10 ordukoa irailean  - Talde 1 30 ordukoa irailean  - Talde 2 10 ordukoak (Aldatzen)
<u>Autoikaskun.</u>	<u>Autoikaskun.</u>	<u>Autoikaskun.</u>	<u>Autoikaskun.</u>	<u>Autoikaskun.</u>	<u>Autoikaskun.</u>
2	1	1	7	16	-

**EPEA:** 2022-2023 ikasturtea

**BALORAZIOA:** 2022-2023 ikasturtean, aurreko ikasturtean baino 61 ikasle gehiago izan ditugu, 254 hain zuzen ere. Orduei dagokienez, 29.941, iaz baino 1.755 gehiago. Aurrez aurreko 19 talde izan ditugu aurten (autoikaskuntzako ikasleekin beste bat konputatzen da HABEren aurrean), iaz baino 3 gehiago. Gurasoak ere eskolara kanpainatik 100 orduko talde bat izan dugu, iaz baino bat gehiago. Unibertsitatean ez dugu izan talderik eta EPAn, berriz, 2 talde sortu dira. Azterketak prestatzeko 3 talde motz osatu dira eta Irailean beste bi talde izan ditugu 30 ordukoak. Uda Ikastaroan, 100 orduko talde bat. Taldeetako ratioa apur bat altuagoa da izan da, 11,9koa, (iaz 11,2).



## IKASLEAREN PROFILA

**DESKRIBAPENA:** 2022-2023 ikasturteko ikaslearen profila ondorengoa da:

SEXUA	
Emakumezkoak	176 (% 69,30)
Gizonezkoak	78 (% 30,70)
IKASKETA MAILA	
Unibertsitate-gradua	125 (% 49,22)
UBI-LHII	79 (% 31,1)
Eskola graduatua	45 (% 15,75)
Beste	10 (% 3,93)

LAN EGOERA	
Lanean edo ikasten	196 (% 77,17)
Langabezian	58 (% 22,83)
ADINA	
16 - 25	57 (% 22,4)
26 - 35	49 (% 19,29)
36 - 45	49 (% 19,29)
46 - 55	63 (% 24,80)
56 - 65	27 (%10,63)
>65	9(% 3,54)



**EPEA:** 2022-2023 ikasturtea

**BALORAZIOA:** Betiko joerari jarraituta, ikasleen profilari begira, ikasleen erdia baino gehiago emakumezkoak izan dira. Titulazioari erreparatuta, gehienek goi eta erdi mailako titulazioa dute, eta batez besteko adina 45-55 urtekoa da, iazkoa baino altuagoa. Langabetuak 58 izan dira, % 22,8 aurreko urteetan baino askoz gutxiago.



## HABEREN AZTERTZAILEAK

**DESKRIBAPENA:** Urtero HABEk maila egiaztatzeko 2 deialdi egiten ditu, bata maiatz-ekaina aldera (deialdi itxia eta irekia) eta bestea urria-azaroa aldera (deialdi itxia zein irekia). Azterketa hauek zaintzeko eta zuzentzeko irakasleak behar izaten ditu. Eibarko Udal Euskaltegiak maila guztietan ditu aztertzailleak. Azterketa deialdi bakoitzaren aurretik Bateratze Saioak antolatzen ditu HABEk eta horietan parte hartzen dute maila guztietako aztertzailleak azterketak zuzentzeko orduan irizpide bateratuak izateko.



**EPEA:** 2022-2023 ikasturtea

**GASTUA:** Bateratze saioetara joateko kilometrajea.


**BALORAZIOA:** Komenigarri irizten diogu maila guztietan aztertzailleak izateari; alde batetik, gure ikasleei irizpideak eta aholkuak emateko eta bestetik, profesionalak garen aldetik, gure lanean etengabe eguneratuak egoteko. HABEren bateratze saioen ondoren, saiatzen gara gure artean, eta denon parte hartzearekin, antzeko saioak egiten, Eibarko Udal Euskaltegiko irakasleok maila guztien ikuspegi orokorra izan dezagun. 2023an, 2022an bezala, maila guztietako aztertzailleak izan ditugu HABEn, B1etik hasi eta C2 mailara arte. IVAPen C2koa baino ez, iazko ikasturtean hasi zen bera.





## FORMAZIOA

**DESKRIBAPENA:** Udal Euskaltegiko langileek etengabeko formazioa jasotzen dute, besteak beste, euren lana eguneratzeko eta eskabide berriei erantzuteko. Formakuntza hori, didaktika arloan zein administrazio arloan izaten da, beti ere, kontuan hartuta unean uneko beharrak, eskaintzak eta eskabideak zein diren.



**EPEA:** 2022-2023 ikasturtea

**GASTUA:** 280,40 + Barne baliabideak

**IKASTAROEN ZERRENDA:**

IKASTAROA	ANTOLATZAILEA	TUTOREA	PARTE HARTZAILEA
Ahozko Trebetasunak lantzeko gakoak eta baliabideak	HABE	Sara Robles <u>Avila</u>	<i>Itziar Garitagoitia</i>
Testu zuzenetik harago: egokitasunerako estrategiak	HABE	Patxi Petirena <u>Altzuguren</u>	<i>Jon Sasiain</i>
Nola diseinatu eta gauzatu bitartekotza-jarduerak ikasgelan	HABE	Carmen Ramos Mendez	<i>Nerea Beitia</i>
Gutxiago zuzendu eta laguntza handiagoa eman	HABE	Teresa <u>Guasch Pascual</u> / <u>Anna Espasa Roca</u>	<i>Sorkunde Juaristi</i>
Estresa Kudeatzeko saioak	Eibarko Udala	Eider Pérez	<i>Itziar Garitagoitia, Arantza Iriondo, Sorkunde Juaristi, Amaia Lete eta Jon Sasiain</i>
Administrazio prozedura eta administrazio elektronikoa	Eibarko Udala		<i>Arantzazu Barrutia</i>
Datuak babesteko erregelamendu orokorra	Eibarko Udala		<i>Arantzazu Barrutia</i>



## KANPO EKINTZAK (1)

**DESKRIBAPENA:** Kanpo ekintzak dira ikasturtean zehar euskaltegiko jarduna osatzeko asmoz eta ikasleak euskaltegiko esparrutik kanpo euskara entzun eta erabiltzeko helburuarekin egiten diren ekintzak. Batzuk euskaltegiak berak antolatzen ditu, beste batzuk, berriz, Euskara Sailak edo Kultura Sailak eskaintzen dituzte; eta, beste hainbat Eibarko talde eragile batzuek programatutakoak dira. Hilabetez hilabeteko eskaintza aztertu egiten da eta ikastaldearen euskara maila kontuan hartuta, proposamena egiten da taldeetan (eskola orduetan izan zein haietatik kanpo). Bestelako ekintzen berri ere eman eta ikasleak animatzen ditugu parte hartzera. Uda ikastaroan ez da kanpo ekintzarik antolatzen.



**EPEA:** 2022-2023 ikasturtea

**GASTUA:** 880 € + Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Orokorrean ikasleek gustura hartzen dituzte kanpo ekintzak, klasearen egunerokotasunetik irteteko aukera ikusten baitute horrelakoetan. Hala ere, kontuan hartu behar da ikasleen gustuak agintzen duela honetan ere, eta zenbaitetan bultzatu egin behar izaten direla parte har dezaten. Hori horrela, denon satisfazio maila ez da bera izaten. Esan beharrik ez dago guk ezinbesteko ikusten dugula kanpo ekintzak antolatzea, ikasleek euskaltegitik kanpo euskaraz antolatzen denaren berri izan dezaten, batetik; bestetik, giro euskaldunean murgil daitezten.

Taulan aipatutakoez gain, hilabetero jartzen da euskaltegiko ohar-taulan hilabeterako euskaraz antolatutako ekintzen agenda.



## KANPO EKINTZAK (2)



- Udal Euskaltegia
- Zeramika eskola
- Margo eta Marrazki eskola
- Ikasten
- Dendarien Elkartea
- Ostalaritza Elkartea

TARTEA: Anbulategia - Ongi Etorri taberna

...tantez tantan eibastarrak  
Euskeraz blai

Egunak: Apirilak 26 eta maiatzak 3, 10 et  
Ordua: 10:00 - 11:00  
Lekua: Ikastaro gelan (Portalea)

### EKINTZEN ZERRENDA:

<b>AZAROA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>GAZTAÑERRE</b> (lehiaketa, apainketa, gaztainak...) -Euskaltegian</li> <li>• <b>BERBETAN</b> programaren aurkezpena - Euskaltegian</li> <li>• <b>EUSKARALDI</b>aren aurkezpena - Euskaltegian</li> </ul>
<b>ABENDUA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Taloak egin - <u>Portaleako</u> sukaldean</li> <li>• <b>EUSKARALDI</b>aren amaiera (Euskararen Eguna)</li> <li>• Gabonetako otarra - Euskaltegian</li> <li>• Bandoaren irakurketa - Udaletxeko Pleno Aretoan</li> </ul>
<b>URTARRILA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• San Blas opilak (egin, lehiaketa...) - Portaleko sukaldean</li> </ul>
<b>OTSAILA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Antzerki jardunaldiak: "<i>Familia sarekada</i>" - <u>UN</u>ian</li> <li>• Antzerki jardunaldiak: "<i>Yerma</i>" - <u>Coliseo</u> antzokian</li> <li>• "<i>Hitzen nahaste horrostea</i>" lehiaketa - <u>Antolatzaileak</u>: AEK, Udal Euskaltegia eta Euskara saila</li> </ul>
<b>MARTXOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Antzerki jardunaldiak: "<i>Lagun beltza</i>" - <u>Coliseo</u> antzokian</li> <li>• Antzerki jardunaldiak: "<i>Hobe ixilik</i>" - <u>Coliseo</u> antzokian</li> <li>• "<i>Extremaduratik euskarara egindako ibilbidea</i>" Jon Maiaren hitzaldia - Armeria eskolan</li> <li>• Mendaroko txokolategira bisita -</li> <li>• <b>FAKTORIN</b> azoka - Toribio Etxeberria kalean</li> </ul>
<b>MAIATZA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Dantza ikastaroa (Euskal dantzak) - Portalean</li> <li>• Hamaika berbaldi: "<i>Hizkuntza eskubideak, denon auzia</i>" Agurne <u>Gabubekaren</u> hitzaldia - <u>Errebal Plazia</u></li> <li>• "Sendabelarrak eta xaboia" tailerra - Portaleko sukaldean</li> <li>• <b>TANTANEZ TANTAN</b> - Eibarko kaleetan</li> <li>• Nutrizio tailerra - <u>FARMACOOK</u>en</li> </ul>
<b>EKAINA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• "<i>Japoniatik euskararen mundura</i>" <u>Hide Dohinoren</u> hitzaldia Eibarko HHI ikastetxea</li> <li>• <u>Couscous</u> egin - Portaleko sukaldean</li> </ul>
<b>UZTAILA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskarazko baliabideak pantailetan. <b>AKEBA</b>ren eskutik - Euskaltegian</li> </ul>



## LIBURUTEGI ZERBITZUA

**DESKRIBAPENA:** Euskaltegiak ikasleen eskura jartzen du liburuen mailegu-zerbitzua. Euskaltegian matrikulatuta dagoen ikasle orok du zerbitzu hau erabiltzeko aukera. Ikasleak liburua aukeratzen du, batzuetan irakasleak gomendatuta eta beste batzuetan bere gustuz, eta dagokion fitxa bete ondoren etxera eraman dezake. Liburua bueltatzeko epea 2 hilabetekoa da. Eskaintzendiren liburu gehienak eleberriak dira; izan ere, hauek dira errazen irakurtzen dituztenak. Urtero liburu berriak erosten dira, argitaletxeen nobedadeak ikusi eta gero edota irakasle edo ikasleren batek gomendatuta.



**EPEA:** 2022-2023 ikasturtea


**GASTUA:** 817,25 €

**BALORAZIOA:** Ikasleek eskertzen dute zerbitzu hau; izan ere, Udal Liburutegiak liburuak irakurtzeko eskaintzen dien epea motza da ikasle askorentzat. Eta gainera liburu askok, liburu barruan, ikasleen iritzia dute idatzita. Aurten 49 liburu erosi dira gramatika-liburu eta eleberrien artean, eta 135 aldiz erabili da mailegu zerbitzu hau.



## EGIAZTATZEGINTZA

**DESKRIBAPENA:** A1 eta A2 mailak ebaluazio jarraituaren bidez egiaztatzen dira. Horretarako, ikasleek euskaltegian maila emateaz gain, beste baldintza batzuk ere bete behar dituzte (gutxieneko asistentzia, laginak jasota izatea...). B1, B2, C1 eta C2 mailetan, berriz, maila egiaztatzeko ikasleak azterketa ofizialetara aurkeztu behar izaten dira. Euskaltegiako ikasleek, baldintza batzuk betez gero, HABEren deialdi itxietara aurkez daitezke, baina badaude beste bide batzuk maila egiaztatzeko, besteak beste, HABEren deialdi librea, Hizkuntza Eskolako azterketak, IVAPekoak...



**EPEA:** 2022-2023 ikasturtea

**BALORAZIOA:** 2022ko 2. deialdiko HABEko azterketen emaitzak batez besteko orokorrak baino hobekak izan ziren maila guztietan; 2023ko 1. deialdian B1 eta B2 mailetan baxuagoa izan da gaitutuen kopurua, baina batzuk ez dira ahozkoa aurkeztu beste azterketaren bat gaitutu dutelako, C1 eta C2 mailetan, berriz, batez bestekoa baino altuagoa izan da gaitutuen kopurua. 2022ko 2. deialdian 21 ikasle aurkeztu ziren HABEko azterketaren batera, eta 11k lortu zuten behar zuten agiria (% 25,4k). 2023ko 1. deialdian, berriz, 52 ikasle aurkeztu dira, eta 24k lortu dute agiriaren bat (% 46,2k). Badira IVAPeko, IRALEko eta HEko deialdietara ere aurkeztu direnak eta horietatik beste 5ek lortu dute behar zuten maila gaitutzea.

A1 eta A2 mailak ebaluazio jarraituaren bidez egiaztatu dira. Maila gaitutzeaz gain, beharrezkoa izan da % 75eko asistentzia eta ebaluazio laginak (diagnosia, tarteko jarduerak eta ikastaro bukaerakoa) jasota izatea. Baldintza horiek beteta, A1 maila 8 ikasle lortu dute (% 38,1k) eta A2 maila beste 8k (% 66,7k).



